



IRAILAK 26

Greba laborala baino gehiago, greba soziala

- **Eskizofrenia** Ehunetik batek sufritzen duen gaitz ezezaguna
- **Jon Landaburu** Kolonbiako hizkuntza autoktonoetan aditua
- **Donostiako Zinemaldia** Zinemirari eta zinema katalanari begirada
- **Zaborra Palestinan** Arazo bat gehiago lurralde okupatuan
- **Net Hurbil** Neoliberalismoarekin utzi genion zorrak barkatzeari



Klima aldaketa

- Zergatik huts egin du Kyotoko Protokoloak?
- Zer espero dezakegu Rio+20 goi-bilera eta gero?
- Badago klima aldaketaren aurka borrokatzerik eredu sozioekonomikoa irauli gabe?



Azaleko argazkia:
JOSU SANTESTEBAN
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



gizarte
kutxa
zugandik zuzana



NON ZER

2012ko irailaren 23a, 2.337. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

SARA COZAR: «Entrenimendu hutsari kontra egin behar diogu». SUSTRAI COLINA / 4

ASTEKO GAIA

ESKIZOFRENIA Ezjakintasunak estigmatizatuta.
GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 5

PERTSONAIA

JON LANDABURU: «Gizakia zer den ikusteko aparteko laborategia duzu Kolonbia». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

ZABORRA PALESTINAN Paisaia politiko zikina.
ANE IRAZABAL / 15

IRITZIAREN LEIHOA

ESKU ZURIAK KANPORA HEGOAFRIKATIK

AMAIA LASA ALEGRIA / 18

BEZPERA JON ALONSO / 20

BERMERIK GABEKO KONTSEILU NUKLEARRA

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

BERTSO BERRIAK Esne txarraren bentajak. AITOR SARRIEGI / 21

TXANDAN Pribilegiatuak. EDU ZELAIETA / 20

ERDIKO KAIERA

MARÇAL FORÉS: «Eremu estuan mugitu naiz, absurdoa izateko arriskupean». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23

ZINEMALDIA, ZINEMIRA SAILA Euskara gutxi entzungo da; irakurri, gehixeago. GORKA BEREZIARTUA / 26

LIBURUAK ARITZ GALARRAGA / 28

DISKOAK IKER BARANDIARAN / 29

EZPALAK JON TORNER / 30 **ABARRAK** JON TORNER / 31

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 35

TERMOMETROA

GREBA OROKORRA Herritarren eskubideak lurperatzearen kontra. DANIEL UDALAITZ / 36

ISRAEL GONZALEZ: «Izorratuena babesteko gai ez bagara, ez dizkigute lan eskubideak itzuliko». URKO APAOLAZA / 39

IRAKAS METODOAK Nola irakatsi hizkuntzak erabiltzeko izan daitezen. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

KAZETARI KURDUEI EPAIKETA «Baimena eskatu behar dut ama hizkuntza erabiltzeko?». JON TORNER / 46

BERO-BEROAN JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL 5.000 urte zorpean baina oraingoan barkamenik ez. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

SARA COZAR

Karteleran zein bestela: hil arte bizi.

| SUSTRAI COLINA |
Argazkia: Sara Cozarrek utzia



«Entretenimendu hutsari kontra egin behar diogu»

Urte osoan zine-aretoak hutsik eta denak Zinemaldiaren zain!

Zinera joaten ez den jendea zinemaldiko ilara amaigabeetan ikustean auzo-lotsa sentitzen dut. Folklorearen da, festa, kalean ez dakit zein famatu ikusteko aukera... Bakoi-tzak egin dezala nahi duena, baina koheren-tziari buruzko leziorik eman gabe.

Donostian ez dagoela kultur mugimendurik diote progre guai koherenteek.

Ez da izango Alde Zaharrean tragoak hartzea gehiago gustatzen zaigula eta, gauerdian, txispatuta, "Donostian ez dago ezer!" haserretzen garela? Ba bazegoen, baina gu pintxoak jaten geunden!

ETB1eko fikzio eskaintza oparoarekin entretenitzen ginela esan behar nizun, baina...

Batetik ETBk fikzioa behar du, eta bestetik beste mota bateko fikzioa. Dena oso garbia, txuria, eta puritana iruditzen zait. Zergatik ez *Sex and the city* bezalako telesail bat Donostian? Amoneri izugarri gustatuko litzaieke!

Edertasun kanonen diktaduran jausten ez garen bitartean...

Ez dut uste itsusia edo polita izatea denik kontua, zera berezi hori edukitzea baizik. Begira Carmen Machi, ez da bereziki ederra, baina bere bizitza osoan egin du lan, aktore bikaina delako. Horixe da irauteko dugun euskarri bakarra.

Antzerkiak Euskal Herrian irauteko duen euskarria komedia den bezalaxe?

Euskal Herrian ez dago antzerkirako ohitura handirik eta jendeak komediak nahi ditu, barre egin, gutxi pentsatu. Horri kultura programatzeko dirurik ez dagoela gehituz gero tarte txikia geratzen da, baina entretenimendu hutsari kontra egin behar diogu.

Lehenbizi, esplikatuz jendearen lanbidea ez dela farandula bakarrik!

Zergatik begiratzen diogu oker farandulari? Noiz ohartuko gara antzezpen bakoitzaren atzean dagoen lanaz? Ulertu nezake fabrikaren zortzi orduz lan egiten duenarentzat mundu eroa izatea gurea, baina agian niretzat harena eroagoa da.

Ez didazu botako purrustadarik zuen lanbidearen prekaritate eta segurtasun ezagatik?

B plan batekin izugarri lasaitzen naiz eta ez naiz nire burua aktore lanetan ez bada inon ikusten ez duen horietakoa. Ate andana daukat irekitzeko. Hori bai, gehien gustatzen zaidana itxi arte ez nituzke ireki nahi.

Lasai, egiten duzuna egiten duzula, *Goenkale*-ko Mimi izango zara beti.

Putakeria litzateke ez banu beste ezer egin, baina beste erregistro asko lantzeko aukera izan dudanez, arazorik ez. Gainera, Mimi kariñoa diot, nahiz eta azkenerako ez nekien zer pentsatzen zuen berak eta zer nik. ■



Ezjakintasunak estigmatizatuta

Ehun lagunetik bat eskizofrenikoa dela diote estatistikek. Horietarik batzuek lana dute, harremanak, hainbestean bizi dira botikei esker. Beste zenbaitek zori latzagoari egin beharko dio aurre. Gaitzak mendean hartuta dituen gaixoen egunerokoa konprenitzeko saio xumea duzu erreportaje hau.


| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

GAITZ MENTAL guztiak zaizkigu arrotzak. Normaltzat jotzen ez denak ernegatu egiten gaitu. Ezjakintasunez, gaitzetsi egiten ditugu eskuarki. Ez da, alabaina, buru nahasmen askorik izango eskizofrenia baino konpreni-gaitzagorik. Hitza aipatu orduko, muturreko bi jokaera artean tirabiran den eroa imajinatu-ko du gehiengoak, zintzo eta halaber gaitzo, zentzudun eta hego haizeak jota, zuzen eta oker, bereizi ezinean. Bestela esanda, karga literariotik urrun legokeen Jekyll doktorea, edaberik gabe ere ezustean transformatzen dena. Edo ahotsak entzuten dituen izaki pitzatua, inoizko krimenik lazgarrietarako joera izan dezakeena. Errealitatea, ordea, funts eskaseko aurreiritzi horiek diotena baino arunt konplexuagoa da.

Eskizofrenikoek ez dute nortasun bikoit- zik, ez dituzte ezinbestean ahotsak entzuten, eta, lupa mediatikotik handietsitako kasuak alde batera utzita, ez dira oro har arrisku- tsuak, beren buruaren kontra ez bada. Bitik bat, bere buruaz beste egiten saiatuko da.

Inor gutxi mintzo da eskizofreniaz. Ez gai- xorik, ez haien seniderik. Izan ere, zein elka- rrizketatan sar liteke “eskizofrenia krisiak izat- en ditut” edo “anaia eskizofrenikoa da” bezalako daturik, ezinbesteko aitortza tonuan ez bada. Zein hizketa klasetan, zein mailatan. Uste baino arruntagoa da, haatik. Uste baino gertuago dago gugandik, ehunetik batek bizi baitu bere baitan.

Baina zer da zehazki eskizofrenia? Ez dago adostasun erabatekorik, definizioari dagokionez. Ez dago diagnostiko ziurra



Eskizofrenia eta sormena erlazionatzen dituzten ikerlan ugari dago. Gaitz honek espresio artistikoa areagotzea dakarkie pintore askori. Beste askori, berriz, alderantziz eragiten die, ahalmen hori guztiz ezabatuz. Irudian, William Kurelek kanadarraren *The Maze* obra (1953) (labirintoa), bere arazo psikikoei eta pentsamendu tristeei eskainia.

kolpe bakarrean egiten lagunduko lukeen sin- toma-sorta garbi, zehatz eta apartekorik, gai- tzari bere-berea zaionik. Horren ordez, zerranda luzea osatzen duten ezaugarrietatik batzuk izango ditu gaixo diagnostikatuak. Eta zergatik horiek eta ez beste batzuk, ez du beharbada inoiz jakingo. Esku-liburu psikia- triko askotan irakur liteke, bestalde, esklusioz diagnostikatzen dela, epe luze xamarra behar dela, erraz sei hilabete, medikutan hasi eta ondorio horretara heldu artean. Epe horre-

Eskizofrenia sintomak

Sintoma positiboak

Ez, hain justu, positibotzat jo daitezkeelako. Pertsonak normalean izaten ez dituen esperientziak eta portaera agertzen ditu. Eskizofreniaren markatzat jotzen dira.

HALUZINAZIOAK

Zentzumenen nahasmenak dira, gaixoarentzat guztiz errealak: ahotsak entzutea (denetan arruntena), usain arrotzak sentitzea, gorputzean aldaketak sumatzea...

ELDARNIOAK, DELIRIUMAK

Uste faltsuak. Ideia erreal eta errepikakorrek dira gaixoentzat. Esate baterako, Jainkoak hautatuak edo odol urdinekoak direla sinestea. Edo eraso terroristaren errudun dela uste izatea, pentsamenduak besteren batek kontrolatu nahi dizkiola sinestea...

Sintoma kognitiboak

Arreta mantentzeko zailtasuna, kontzentrazio eta memoria arazoak.

Sintoma negatiboak


Normalean dituen jokabideen aldaketa, jardunaren murrizketa.

Motibazio eza, axolagabetasun emozionala, isolamendua, iniziatiba eta bat-batekotasuna galtzea, harremanetarako eta komunikaziorako arazoak, hizketa mugatu eta saltokakoa, pentsamendu nahasiak, loturarik gabekoak. Sintoma negatibo hauek direla kausa, sarritan alferrak edo axolagabeak izatea leporatzen zaie eskizofrenikoei.

tan, gainera, eldarnioak, deliriumak eta haluzinazioak eragin ditzaketan beste hainbat kausa eliminatu beharko dira hasteko eta behin. Besteak beste, tumorea, plaken esklerosia, depresio psikotikoa, egoera maniatikoa edota nahasmendu bipolarra.

Izatez, zaku zabala da eskizofrenia. Azpi-multzo pareta baino gehiago eta azalpen argirik ez duten arazo psikotiko franko hartzen ditu bere baitan; kasu, jokaera, patroia eta istorio mordoa: antzeman ere egiten ez zaionetik hasi eta, errealitatearekiko lotura galduta, gizarteari bizkar emanda bizirauten duenera arteko aldaera guztiak. Hona hemen adibide bat, ezer orokortzeko asmorik ez lukeena.

Protagonistak, dei diezaiozun Xabier, 18 urte zituen lehen krisiak ezgaitu zuenean. 43 ditu orain. "Oso gogoan dut egun hura", azaldu digu haren arreba gazteagoak, ARGIArako narrazioaile lanetan jarrita. "Saninazioetan izan zen, Rock Radical Vasco delako garai hura bete-betean bizi genuela. Anaia zaharrena zeharo kezkatuta heldu zen etxera, Xabierren portaragatik harrিতuta". Bi anaiek urtebeteko aldea dute eta lagun-talde berekoak dira. "Hark botatako hitz zehatzak erabiliz, 'mongolitoa' balitz bezala gelditu omen zen, hantxe plazan,



festaren erdian. Handik gutxira gure izeba erizaina etorri zitzaigun etxera, psikologo bat lagun zuela. Niri, 14 bat urte izango nituen orduan, etxe horretatik ateratzea komeni zitzaidala esan ziguten".

Arreba –dei diezaiozun Idoia–, kolonietara bidali zuten, beraz. Xabierrek, berriz, Donostiako Ospitale Psikiatrikoan pasatu behar izan zuen bolada. Handik aterata, Gizakia Helburu erakun-

dera jo zuen, orduko usteen arabera, bere nahasmenduaren kausa droga zaletasuna izango zelakoan. "Izan ere, asko hartzen zuen anaiak –jarraitu dio kontaktetari Idoiak –, eta oraindik ere horixe du bizi-poza". Hala ere, inor txok ere ez zuen panorama garbi, "psikosia eta antzekoren bat ere ikusi nuen paperen batean idatzita. Ni, harri eta zur, izen bereko filma burutik ezin kendurik".

Urte batzuetan ziklikoa bilakatu zen Xabierren portaera. Udazkenean Gizakia Helburuko programari heltzen zion. Negua nahiko txukun pasatzen zuen, tarteka lana ere eginez. Sanferminetan, ordea, berriro hasten ziren komeriak. Zeharo aztoratuta itzultzen omen zen handik, eta halaxe pasatzen omen zuen udaldia.

“Egoera erabat zailtzen zenean, okerrak egiten hasten zenean, bidali egin behar izaten genuen etxetik. Esate baterako, labana hartzen zuenean. Ez genuen uste gure kontra hasiko zenik, baina egoera bera beldurgarria zen. Krisialdi horietan geu ginen gaiztoak harentzat, bere etxekoak, eta bereziki ama. Amaren kontra zuen dena, sekulako obsesioa. Amak gehiago ezin zuenean alde egiteko eskatzen genion. Aita baztertu egin zen apurka, arduratzeari utzi zion. Oso zaila da horrelako pertsona batekin bizitzea, oso maitea izanagatik ere. ‘Ezin diagu aguantatu, ingresatu egin behar duk, ospitalera joan behar duk’ esaten genion”.

Droga munduan dezente sartu zen Xabier. Gehientsuenak kontsumitu zituen, Idoiaren hitzetan, “heroina, speeda, kokaina konturik ez diot entzun, eta porroak. Azken hauek oso txarrak zirela esaten zigun”. Ospitalean ingresatzen zutenean, ordea, abstinenzia sindromerik ez zioten aurkitzen.

Gaitza konprenitzen hasi zirenekoa

Behin, Marokora haxix bila joan eta amabirjina ikusi zuela esanez heldu zen handik bueltan. Odol urdinekoa zela ere esan izan zuen gerora, krisialdi betean. Eneko Aritzaren oinordea zela, eta prest agertzen zen gainera, frogatzeko. Esate baterako, esku-muturrean ebakia eginda, odola agertu zedin, odol urdinekoa zela ikus zezaten ondokoek. Garai hartan, Donostiako Ospitale Psikiatrikoan ez ezik, Arrasatekoan ere ingresatu zuten. Idoiak gogoan duenez, orduan hasi zitzaizkien eskizofrenia aipa-

Zenbait datu

- Kultura, klima eta talde etniko guztietan dago eskizofrenia.
- Kasu gehienak nerabezeroaren azken fasean eta heldutasunaren hasieran diagnostikatzen dira. 16 eta 25 urteen artean.
- Gizasemeak gazteagotan jotzen ditu emakumezkoak baino, eta gogorrago. Zergatiak ez daude garbi.
- Eskizofrenia garatzeko arriskuaren atzean herentzia genetikoa dago. Dena den, joera genetiko horri estres maila handia gehitu behar zaio ezinbestean. Eskema genetiko erabat garbia izan gabe estres maila handia jasan duenak errazago du eskizofrenia garatzea, genetikoki joera handikoa izan baina halako estresik jasan behar izan ez duenak baino. Estres hori bizitzako martxak eragina da. Senide baten heriotzak, lanik gabe gelditzeak, ezkontzeak, gaisoaldiak, haur baten jaiotzak... Gertaera eta sentsazio ugari areagotu dezakete estres hori.
- Ikerketen arabera, haxixa errez gero, sei aldiz handiago da eskizofrenia garatzeko aukera. Alta, eskizofreniak jotako askok alkohola, haxixa, anfetaminak edota kokaina kontsumitzen dute gaitzak eragiten dizkien sintomak eta sentipenak, hala nola ezinegona edo depresioa, apaltzen dituztelakoan. Momentua pasata, ordea, are sakonagoa da amiltzea.
- Haurdunaldiko eta erditze momentuko eragozpenek eskizofrenia garatzeko arriskua areagotzen dutela susmatzen da.
- Lehen antipsikotikoa 1950eko hamarkadan asmatu zuten. Antipsikotikoak sintoma positiboen kontrolean du eragina, eta gaixoen %70-80ri on egiten dio. Alabaina, hainbat egun behar ditu efektua egiten hasterako.
- Yogak, meditazioak eta kirolak mesede egiten dute.
- Eskizofrenikoek, botiken eraginez sarritan, gizentasun eta diabete arazoak izaten dituzte. Baita odol tentsio altua, bihotzekoak eta arnas hartzeko arazo kroniko larriak ere. Bestalde, asko erretzeko joera erakusten dute.

tzen. “Drogadikzioa beste plano batean gelditu zen. Anaia zoratuta zegoela esaten hasi zitzaizkigun, eta onartu egin behar genuela bere eromena”.



Gasteiz

Liburu azoka irailaren 21etik urriaren 7ra, Gasteiz Hiribidean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Zaila da hori, ordea. Idoiaren azalpena baliatuz, “gaixo dagoen pertsonari begiratzan zaionean, pertsona bera da osotasuna, gaixotasuna ondoan duen zerbait da. Pertsona alde batetik eta gripea bestetik. Gaixoa batetik, eta minbizia bestetik. Guk Xabier eta gaixotasuna bat eginda onartu behar genituen, bere izatetik bereizi ezin dena bezala.

IRATI QUEREJETA / EUSKONNEWS



IMANOL QUEREJETA AYERBE

DONOSTIAKO OSPITALE UNIBERTSITARIOKO ZERBITZU PSIKIATRIKOKO BURUA

«Gaixoa tratatzean sortzen den arazo nabarmenena sindrome metabolikoa da»

Konplikatuak dirudi eskizofrenia diagnostikatzea. Prozesu luze baten ondoren heltzen da. Bestalde, zaku zabalaren antza du, mota askotako sintomak eta ondorioak hartzen ditu bere baitan. Hala da?

Eskizofrenia diagnostikatzeko irizpide kliniko batzuk erabiltzen dira eta ez da hain zaila gaur egun.

Diagnostikoa egiteko garaian, zer da zuentzat zailena? Oro har, zein fasetan heltzen da pazienteak zuegan?

Batzuetan zeharo jota heltzen zaizkigu. Hain gaixo, ezen ez baita posible harekin hitz egitea. Eta geure fonendoskopioa, nolabait esatearren, elkarrizketa da justuki.

Diagnostikoa garbi dagoenean, zer da zailena pazientearekiko, pazientearen familia eta inguruarekiko?

Dena. Tratamendu guztiek ikuspegi medikoak, psikologikoak, familiarak eta sozialak lotu behar dituzte, eta atal bakoitzak bere zailtasunak ditu.

Zer da eskizofrenia duten pazienteen artean, gehien zoratzen edo aztoratzen dituen sintoma? Zer gomendio ematen duzue?

Eskizofrenia oso gaitz larria da eta dena aztoratzen du, pentsamendua, pertzepzioa, borondatea eta harremanak. Gaitz honek aipatu

ditudan ikuspegiak erasotzen ditu eta denak tratatu behar dira.

Bestalde, gaixoak normalean ez dira gertatzen ari zaienaz jabetzen. Ez dute horren kontzientziarik, eta ez dira konturatzen bizi dutena gaixotasunaren ondorio dela.

Tratamendu osoa hartu behar du, medikazioa, psikoheziketeta, familiako laguntza eta errehabilitazioa.

Zergatik dago hain estigmatizatuta gaitz hau?

Ezjakintasanagatik. Baina nahasmentu hauen sustrai biologiko eta psikologikoak orain dela 50 edo 60 urte baino hobeto ezagutzen ditugu.

Besteak beste, antipsikotikoak ematen zaizkio pazienteari, sintomak apaltzeko. Antza denez, sendabiderik ez da oraino. Bestalde, botika hauen albo kalteak handiak dira eta pazienteek sarritan hartzeari uzten diote, eta horren ondorioz hondoratu egiten dira berriro ere. Zer diozue?

Egia esateko, gaur egungo botikak askoz ere ziurragoak dira. Hala ere, daukagun arazo nabarmenena sindrome metabolikoa da. Alegia, gaixoak obesitatea, diabetea, hiperkolestrolemia edota hipertrigliceridemia garatzen ditu. Hauei aurre egiteko badira psiko-heziketa programak. Autoestimua, elika-

Baina onartze horrek etsipena ere badakar. Borrokatu egin nahi duzu anaia ondo ikusteko. Eginahalak egiten dituzu. Urte mordo behar izan genuen onarpen horretara heltzeko. Eta bera, Xabier, ez dut uste oraindik onarpen horretara heldu denik. Amabirjina benetan ikusi zuela, bere baitarako benetan aurrez aurre izan zuela sinetsi genuenean hasi ginen zer gertatzen ari zitzaion konprenitzen”.

dura eta ariketa fisikoa lantzen dira hauen bidez.

Baina zer da sendatzea? Kasu askotan, gaixotasuna ez esprestatzea lortzen da botikak hartuz.

Eskizofrenia eta droga, bereziki haxixa, sarritan lotu den bikotea. Zein da zeinen ondorio?

Zaila da esatea, baina gero eta jende gehiagok garatzen du eskizofrenia haxix eta beste zenbait droga kontsumitu ondoren.

Estatistikek diotenez, %1 eskizofrenikoa da. Ez al da larritzeko modukoa? Zuen ospitalean zer dimentsio du gaitz honek, ingresatzen diren estatistikak zenbati diagnostikatzen zaio?

Hala da, eta kultura guztietan. Geure ospitalean ingresatzen diren pazienteen herenari gutxi gorabehera horixe diagnostikatzen zaio.

Osasun publikoaren aurrekontuek ere guraizea dute mehatxu nagusi. Nola afektatzen dizue zuei, psikiatroi? Eta eskizofreniari edo halako gaitz kronikoei dagokionez, zer ondorio izango ditu?

Programa berri bat da bidean, eta guraizea sartu beharrean, badirudi baliabideak izango ditugula. Beraz, egoera hobetzea espero dugu. Behintzat, uste horrekin ari gara lanean.

Erorialdiak

Gaixotasunak duen alderdirik latzenetako bat legea da Idoiaren ustez, sistema bera. “Krisiak ikusi egiten dituzu etortzen. Badatozela badakizu, eta ezin duzu ezer egin. Zure irudipena besterik ez bada, frogarik ez baduzu, ezin duzu gaixoa ingresatu dezaten eskatu. Inork ez dizu kasurik egiten, ez bada epailearen aginduz, baina epaileak ez du ezer egingo salaketarik ez badago. Ezin duzu zerbitzu sozialetara jo, arriskutsua ez den artean. Arazoa zeurea da dena”. Xabierren familiak gizarte-laguntzailearen bidez nahi izaten zuen salaketa bideratu, “ez guk jarrita”, nabarmendu du Idoiak, “Xabierrek ikus baitezake salaketa, eta hori besterik ez zuen behar, guk salatu genuela jakitea”.

“Hura ingresatu nahia ez zen haren beldur ginelako –jarraitu du–, baizik eta babestu nahi genuelako, eta baita jendea ere. Xabier oso kalekumea baita, beti kalean, beti jende artean. Kalean bizi da eta kalea bizi du”.

Azken krisialdian aizkora eskuetan zuela irten zuen herriko plazara. Jende askok ikusi zuen horrela –3.500 biztanle inguru dituen herri batean bizi da–. “Itsusia da horrela esatea, baina hura salbazioa izan zen”, diosku Idoiak. “Egoera bere onera etor zedin erantzainak etorri ziren, eta horren ondorioz epaileak Xabier ingresatzeko agindua eman zuen. Gero okupazio-terapian hasi zen, eta berriro medikatzen. Terapian dagoen bitartean amak ordu batzuetako bakea du. Bestalde, Xabier askoz zainduago dago, familiakoek ez ezik okupazio terapiako kide eta laguntzaileek kontrolatzen dute, eta hori ona da”.

“Pentsa liteke, bestalde, Xabier biolentoa dela, beldurra eman dezakeela”, argitu digu



Craig Finn-ek bere buruari egindako erretratuak. Tratamendua hartzen ari deneko unea azaltzen du. Wikipediatik hartua.

arrebak. “Eta ez da inondik ere. Gogo handiago izan dut nik hari min ematekoa, hark niri ematekoa baino”.

Medikazioa

Nahasmena hasi zenetik hona, hamar urte on egin zituen Xabierrek. Eman zioten botikak on egiten zion, odol analisiak egiten zizkion, eta horien bidez hartzen zituen drogen kontrola ere eramaten zioten. Udalak garbitzaile lanetan jarri zuen. Kasik nostalgiaz gogoratzen du bolada hura Idoiak. “Halako batean kendu egin zioten botika hura, eta akabo. Gibela

kaltetzen omen zuen”.

Orain hartzen duen botikak sekulako ezinezona sortzen dio, eta jateko gogo ikaragarria, ezin inola ase. “Medikamentu batzuek sekulako dardara jartzen dute, oinak ezin geldirik eduki. Nabarmena da gainera. Eskizofrenia duen ezagunen bat seko puztuta ikusten duzunean badakizu, botikak hartzen hasi dela, berehala jabetzen zara hori ez dela gizentze normala”.

Medikamenturik gabe, ordea, arrunt okerrago. “Oso gogorra da haientzat horrela bizitzea, ondorio txar horiek denak pairatzea, baina botika horiek gabe berehala hasten dira paranoiak eta gainerako sintomak”. Ez dago, oraingoz, besterik.

Idoiak, zaintzaileek eta buru gaitzetan adituek esango luketen bezala, Xabierri asko lagunduko lioke lanak. Ez du, ordea. Amak ditu harekiko ardura guztiak. Haren zaintzarik gabe ezingo luke aurrera egin.

Izatez, ez du ezta laguntza ekonomikorik ere, dependentzia legeak ez baititu horrelako kasuak bere baitan hartzen. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

JON LANDABURU

«Gizakia zer den ikusteko aparteko laborategia duzu Kolonbia»

Gasteizkoa aita, zarauztarra ama, Parisen jaioa bera, kolonbiar hiritarra...
Kolonbiako hizkuntzetan espezialista zailduena euskalduna dugu.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

“Orocueko sabanan zenbait ordu noragabe erdi galdurik ibili ondoren, artean Kolonbian, Orinokoren ekialdeko Los Llanos erdian zegoen indiar batzuen baserrira heldu nintzen, zeharo nekaturik. 1968. urtea bukatzera zetorren”. Zeuk idatzia da. Eta egundo horrelakorik! Lehenengo Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta EAJko diputatu Frantzisko Jabier Landaburu-uren semea, Parisko erbestean jaioa zu, Kolonbiako oihanean galdurik.

Ni, bai! 50eko hamarkadaren bukaeran gure aitak erabaki bat hartu zuen. Gogorra egin zitzaion, baina beharrezkoa zela esan zigun beti: frantziar nazionalitatea harrarazi zigun. Ez zuen nahi gu espainolak izatea. Gorka nire anaiak ere esango zizun hori [ikus Gorka Landabururi egindako elkarrizketa ARGIAren 2180. zenbakian]. Are gehiago, euskaldunak izan gintezen, gurasoek hona bidaltzen gintuzten udan. Aitak ez zuen nahi Euskadirekiko harremana hausterik. Pentsatu ere ez. Berak, berriz, frankismoak irauten zuen bitartean ez etortzea erabakita zeukan. Bistan da, konpromiso politikoagatik, Jose Antonio Agirrerri leial izateagatik, eta Parisko ordezkariari eusteagatik. 40ko hamarkadaren amaieran Europako sozialdemokrazia eraikitzeke lanean Frantzian egindako lagun bitartez, hango nazionalitatea eman ziezaguten lortu zuen. Ez zen gauza erraza ere! Horrela egin ginen gu frantziar. Bera ez, bera apatrida zen, NBERen estatutuaren arabera. Gure aita ez zen Espainiako enbaxadara joaten, eta frantziarra ere ez zen. Apatrida zen, eta apatrida joaten zen bateko eta besteko herrialdeetan egiten ziren bilkura eta biltzarretara.

Zuen aita, apatrida. Zuek aldiz, Frantziako hiritarrak.

Frantziar izateak mugitzeko erraztasunak eman zizkigun, Euskadira etortzeko bidea ireki zigun. Berehala sartuko zen Francoren polizia gure kontra, Frantziako hiritar ginen aurka. Espainiak nahikoa eta gehiegi zuen garai hartan Frantziarekin!

Abantaila, beraz.

Baina desabantailak ere baziren txanponaren beste aldean: soldadutzara joan beharra genuen, kar, kar, kar. Aljeriako gerlako garaia, adibidez, oso konplikatua izan zen gure anaia nagusi Xabierrentzat. Aljerren izan zen bi urtez. Gure aitaren heriotzarekin batera itzuli zen Xabier hango gerratik. 55 urterekin hil zitzaigun aita, gazterik, Agirre bezala. Hiru urte izan ziren tartean. Hor ere bada zer kontatu... Tira, berehalako batean hil ziren biak, biak gazterik. Ni unibertsitatean ikasten ari nintzen ordurako. Filosofia ikasketak egin nituen lehenengo, eta Hizkun-

NORTASUN AGIRIA

Jon Landaburu Illarramendi (Paris, 1943) euskalduna da, eta frantses eta kolonbiar hiritarra, beraren curriculum vitae-k agintzen duenez. Kolonbiako hizkuntza autoktonoetan espezializatutako hizkuntzalaririk inportanteena da. Era berean, hizkuntzalariek prestatu dituzten bateko eta besteko kolonbiar hizkuntzak azter ditzaten. Hizkuntza indigenak biziberritzeko legeriaren bultzatzailea da, eta Kolonbia bertako hizkuntz komunitateen kolaboratzaile zuzena.





tzalaritza gero, Sorbonan. Horretan, soldadutzara joateko garaia etorri zitzaidan. Soldadutza egiteko era bat azaldu zen orduan, kooperazio zibila. Haren bidez unibertsitateko gazteek munduko hainbat herrialdetan landu zezaketen beren lanbidea. Baziren ingeniariak, medikuak, irakasleak... Tartean izan nintzen ni.

Kolonbian gertatu zinen zu.

Filosofia irakasle bidali ninduten Bogotako frantses lizeora. Ez alferrik! Laster nintzen bertako unibertsitateekin harremanetan eta, oroz gain, Andeetako Unibertsitatearekin, non antropologia departamentu bikaina zuten. Bertako zuzendariak, [Gerardo] Reichel-Dolmatof-ek –austriarra zen jatorriz– dei egin ninduen bizpahiru hilabeteren buruan: “Ondo ari zara, baina abstrakzioetik jaisteko garaia heldu zaizu!”. Nik 23-24 urte izango nituen. “Abstrakzioa”. Gaztea izan! “Proposamena egin nahi dizut. Hara, hemen hizkuntza mordera dago, oso ezezagunak asko. Hitzen lekukotasuna dugu –onenean, alegia–, baina besterik ez. Zertan ez zara horretan lanean jartzen? Finantzabidea inguratuko dizut”, “ez zait interesatzen, ordea. Ni euskalduna naiz, hizkuntzalaritza ikasi dut, filosofiaren ikuspegitik –hau da, unibertsaltasunetik–, aztertu nahi nuelako gure hizkuntzaren funtzionamendua eta, oro har, gainerako hizkuntzena”, “zoaz eta ikus ezazu”. Dirua eman zidan, erostekoak agindu zizkidan, eta ia ipurdian ostikoak jo ninduen handik irten eta lan hura egin nezan, nik ez nuen eta horrelako intentziorik.

‘Konkista’ I

“Iberia-koen inbasioak kataklismoa eraman zuen Amerikako herri indigenetara. Inoiz izan den hondamendi demografiko eta kulturalik handiena izan zen. Hildako kopuru handia, lehenengo, ‘txoke biologiko’-aren ondorio izan zen. Amerikako indiarren erdia baino gehiago europarren bakteriatu eta birusek hil zituzten, hau da, nafarriak, tetanoak, tifusak, gripeak, elgorriak eta bestek”.

Ekainean, Bartzelonan, Linguapax saria jasotzeko ekitaldian hiru alderdi azpimarratu zenituen Kolonbiako hizkuntzak aztertzeke eskaria jaso eta mundu horretan barna sartzen lagundu zizutenak. Lehenik, euskalduna zinen, erbesteratuen semea. Bigarrenik, frantziar unibertsitarioa ere bazinen. Hirugarrenik, hizkuntzalaria izateko asmoa zenuen.

Bai. Euskaldun abertzalearen seme izateak hizkuntza balioztatzeran ninderaman. Gainera, hizkuntza minorizatua, pertsegitua eta balio-gabetua zen garai hartan euskara. Orokueko aldi hartan, nekazari haiekin topo egin eta nire jendearen zoriarekin bat egin nuen nolabait. Indiar haiek hemengo baserriarrak baino askoz ere behartsuagoak ziren, jakina, eta haien hizkuntzak ez zuen euskarak bizi zuen pertsekuziorik, baina gizarte giroan zegoen haien hizkuntzarekiko mespretxua eta gutxiespena. Ilusio bat izan zen.

Ilusio erromantikoa?

Bai, horixe, ilusio erromantikoa. Nik euskara aztertu nahi nuen, hizkuntzaren erroa, hizkuntza mespretxatua sasoi hartan. Frantziako gaztearen ilusioa ere baneraman, jakina. Frantziarrak beti izan dira salbai zaleak, *bon sauvage* esaten dute haiek, munduaren misterioa haietan balego bezala. Erromantizismo hutsa! Jean Jacques Rousseau, Chateaubriand eta gainerakoak... Gure joeratik kanpo dagoenak halako argitasun bat dakarkigu, haren beharra dugu. Berez, hor ez dago okerrik, baina, batzuetan, halako mistifikazio suete bat ere badakar horrek, urrutiegi joan nahi denean batik bat. Alteritatea ulertu eta onartu

nahi denean gertatzen den erakarpena da. Beharbada horixe gertatu zitzaidan niri. Misifikazioak harrapatu ninduen neurri batean, nahiz eta ez erabat.

Hirugarren eragilea zure bidean sasoi hartan, hizkuntzalari izan nahia.

Sorbonan irakasle izan genuen Andre Martineten hizkuntzalaritza ere halakoxea zen, estrukturalista. Hizkuntza, sistema itxi bezala erakusten zen, guztiz egituratua zegoen, guztiz trinkoa zen. Esan dudanez, frantses lizeotik unibertsitatera jo nuen, eta Kolonbiako hizkuntzak aztertzen hasi nintzenez konturatu nintzen Europako hizkuntzalaritzak ez zidala balio. Europako hizkuntzalaritza testu zaharren gainean eraiki zen. Testu indoeuroparrak ziren, literatur testu idatziak. Nik berriz, ahozkotasuna bizi zuten gizarteak nituen aztergai. Kinka horretan, Iparramerikako hizkuntzalaritzara jo behar izan nuen, argi bila. Han bai, egin nahi nuen bidea aurretik egin zuten hizkuntzalari bikainak ziren: [Ranz] Boas, [Edward] Sapir eta beste. Orduan ere, Benjamin Whorf-en filosofia erromantikoa zen nagusi. Alegia, esaten zuen hizkuntzak herri baten kultura eta mentalitatea adierazten dituela.

'Konkista' II

"Inbasoreek gizarte sistema kolonialista esklabista inplementatu zuten. Herrien funtzionamendu autoktonoa suntsitu zuten, eta ordu arteko gizarte egiturak eta ahalmen teknologikoak hondoratu zituzten. Konkistatzaileek langileak esklabizatu zituzten, eta familia eta auzo mailako harremanak izaten baino ez zieten utzi".

Pentsamendu horrekin abiatu zinen lanean.

Bai, hango indigena haien hizkuntz egoera ez zen euskaldunena, indiarra ez zen garaiko frantses unibertsitario erromantikoek pentsatzen zutena, hizkuntza ez zen 70eko hamarkadako hizkuntzalari estrukturalistek uste zutena... Ordurako, hizkuntzen arteko harremanaz ari ziren batzuk. Beste batzuk berriz, esaten hasita zeuden hizkuntza ez dela organismo itxi bat, ez esentzia bat ere, prozesu historiko guztiz aldakorra baizik.

Hizkuntza, prozesu historikoa?

Bai. Hizkuntzak animalia espezie baten antza duela esaten da orain, indibiduo bakoitzak bere sistema duela. Idiolektoak, alegia. Hizkuntzarik, izatez, ez dagoela, nork bere estrategiak dituela, pertsona gehienak –edo asko, behintzat– elebidun direla, eta norekin ari garen, hizkuntz sistema aldatu, egokitu egiten dugula. Zalantzarik gabe, horrek gauza asko ulertzen lagunduko digu: zergatik aldatzen diren hizkuntzak, zergatik sartzen diren harremanetan, zergatik mailegatzen dizkioten batak besteari hitzak eta egiturak... Garai hartan, euskara esentzia hutsa –esaterako, zerutik jaitzia ia-ia– zela pentsatzen genuenean, ezin ulertuzkoak zitzaizkigun auzi horiek! Koldo Mitxelenak egindako fonetika historikoko

EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia


1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baitmen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELAPARRA
HEMEN PARRU



AZKEN HITZA

Izorratuta

“Bi urtekoa zen soldadutza garai hartan. Kolonbiara Kooperazio programaren barruan heldu eta Iñaki Garai ezagutu nuen. Gernikarra, euskal etxe txiki bat zuen Bogotan. Eta esan zidan: ‘Txikito! Hiru urte baino gehiago egiten badituk hemen, izorratuta hago, ez duk itzultzeko modurik izango’. Horixe zen beraren esperientzia. Lau urte geratu nintzen, eta Iñakik arrazoi! Itsasoa zeharkatzen nuen aldiro halako ezinegon bat izaten nuen, Kolonbiara itzultzeraz bultzatzen ninduen. Eta halaxe izan da nire bizitza”.

ikerketa haiek eta, Martinet oinarri harturik egin zituenak! Hori aldatu egin da. Gaur egun badakigu hizkuntza ez dela monolito bat, ez eta herriaren izpirituaren ispilu, alemanek horrela pentsatzen zuten arren. Poliki-poliki konturatu ginen “salbaia” ez zela egiaren iturri, euskararen egoera ere ez zela hango hizkuntzena, konparazio posiblerik ez zegoela.

Uste guztiak pekoz gora jarri zitzaizkizun...

Bai. Denborarekin nabardurak egin nituen, ikasi egin nuen, praktikaren poderioz batez ere, indigena haiekin biziz, haien indarrak eta ahulguneak ulertuz, eta guri erakusteko zutena asko zela ikusiz.

Bidea egin duzula, gero, 1968tik hona. Inork ez bezala aztertu dituzu Kolonbiako talde etnikoen hizkuntzak. Irakurri dudanez, 68 hizkuntza dira han, milioi bat hitzun denera, Kolonbiako 46 milioien artean.

Egoera dibertsoa da, eta konplexua. Dibertsoa, hamaika egoera ezberdin direlako. Hamahiru hizkuntz familia dituzu. Ikaragarria da hori! Tartean, zortzi hizkuntza isolatu, euskara bezain. Ez dago arbolarik, adarrak besterik. Zepak, nahi baduzu, mahatsondoak... Tira,

‘Konkista’ III

“Bertako apaiz eta administrarien jakintza desagerrarazi zen.

Artisauak, urregileak, eltzegileak, ehuleak, eskulturagileak, arkitektoak, itsasontzi-jabeak... nabarmen urritu ziren, edo desagertu. Esklabotasuna, sarraskia eta okupazio militarra nagusitu ziren. ‘Deskubrimenduak’ mendeak irau zituen”.

horrela esatera jotzen dugu, metaforak erabiltzera, ulertzen ez dugun errealtatea nola azaldu ez dakigunean. Zientzialari zintzoak badaki ez dakiela. Hurreratzen da, huts egiten du, ez du asmatzen, eraiki duen sistemak ez dio balio... Horrela ohi dabil zientzialaria.

Hizkuntz zepak esan duzu...

Bai, zepa barietate genetikoak. Oso ezberdinak denak ere. Kolonbiako kokapen geografikoari zor zaio aniztasun handi hori. Amerika bien arteko istmoaren irteeran dago Kolonbia eta, beraz, herri guztiak pasatu ziren handik. Haietako asko hantxe geratu ziren. Jatorri barietate handi hori hor dago. Bestalde, dibertsifikazioa ere ez da makala, herrialdea ekologikoki ere oso bariatua da eta hobi termikoz beterik dago lurraldea. Ekuatorearen azpian gaude, batean, eta 6.000 metroraino igotzen gara, berriz, bestean! Hor denetatik duzu: estepa, sabana, bi ozeano, hiru mendikate, oihan tropikalak...

Aniztasuna.

Diren eta ez diren biotopoak ditugu Kolonbian, planetan diren ekologi sistema denak, edo gehienak. Hobi termiko horietako bakoitzean milioika urtez garatu diren gizarteak ditugu, beren hizkuntzak ere garatu eta aldatu dituztenak. Gizakia zer den ikusteko aparteko laborategia duzu. Kolonbia, Kenya, Ginea Berria... Badira munduan zenbait herrialde guztiz ezohikoak, non modu zeharo berezian ikusten den giza garunak duen egokitze gaitasuna, non sistema sinbolikoak sortzen eta aldatzen dituen, enteleguaren teknologiaren asmatze kontzeptualak egiteraino. Entelegua teknologia bat da-eta, azken finean. Horrela, denbora eta espazioa pentsatzeko modua, izakiak sailkatzeko era, prozesuak eratzeko bidea... guztiz bariatua da eta, ondorioz, giza garunaren zabaltze liluragarria gertatzen da, hizkuntzetan gauzatua. ■



Euskal Museoa

Miguel de Unamuno plaza 4 • 48005 BILBO

Tel. 94 415 5423

museoa@euskal-museoa.org • www.euskal-museoa.org

ZABORRA PALESTINAN

Paisaia politiko zikina



Zaborraren arazoa larria dela gutxi ezkututzen dute Palestinan. Israelgo okupazioak eragindako etsipena ala kontsumismoaren ondorioa? Paisaiaren “plastifikazioak” zeresan handia du egungo testuinguru politikoan.

| ANE IRAZABAL |

Argazkiak: Cosimo Caridi

OBRA-HONDAKINEN, auto zaharren zatien eta plastikozko poltsen artean “Ramala” sinatzen duen kartel handi batek Zisjordaniako urbe handira gonbidatzen gaitu. Erre berria den zaborraren usainak eta trafikoak eragindako soinu kutsadurak osatzen dute ongietorria.

Ondoan harresia eta Qalandiako *checkpoint* aski ezaguna. “Okupaziorik gabe, noski, baina Ramalak 1970eko hamarkadako edozein hiri mendebaldar irudikatzen du, non garapenaren eta modernismoaren baloretzat hartzen zen kutsadura”, adierazi du Abu Diseko unibertsitatean Ingurune Zientziak irakasten dituen Alice Gray ekologoak.

Palestinako hiriburu izateko asmorik ez du Ramalak, baina Osloko Akordioen ondotik eraiki den Palestina berriaren sinbolorik argiena da. Espazio urbanoen eraldatzea, gizarte indibidualistaren garapena eta kontsumismoaren gorakada joera nahiko berriak dira palestinarrentzat. Testuinguru berria nazioarteko diru emariek eta, oro har, Gobernuz Kanpoko Erakunde handiek sortu duten garapen ekonomiko irrealaren eredu dela aldarrikatzen du aditu askok.

Errealitate berriaren begi-bistako ondorio bat izan daiteke zaborra. PAN Palestinako Agente Nazionalak egindako azterketen ara-

ZABORRA PALESTINAN

bera, Zisjordanian 1,3 kg. zabor sortzen du biztanle bakoitzak batez beste egunean. Zabor horren %60 organikoa da. Duela urte gutxira arte, 155 zabortegi zeuden 5.600 kilometro koadroko azalera duen eremuan. Orain hiru zabortegi handi eraiki nahi ditu PANak Munduko Bankuak emandako diruaz. Bata iparraldean, Janin aldean; bigarrena erdialdean, Ramala eta Jerusalem ekialderako, eta azkena hegoaldean, Hebron eta Betleem artean.

Nolanahi ere, ez dago “hondakin solidoak” kudeatzeko politika bateraturik lurralde okupatuan. Udalerri bakoitzak edo udalerri ezberdinez osaturiko batzordeek jasotzen dute zakarra, eta haiek erabaki non bota. Tartean, azpiegitura nahikorik ez dutela kexu dira udalerri asko.

Estrategia falta

Zaborraren arazoak taxu teknikoa duela uste du Judeh Marcos Betlemgo gobernazioan zakarra jasotzeaz arduratzen den batzordeko zuzendariak: “Kamioiak falta zaizkigu eta langile gehiago kontratatu ahal izateko udalerriek zerbitzua jasotzeko beharrezkoa den tasa ordaindu behar dute”.

Baina Palestinan arazo teknikoa testuinguru politikotik aldendu ezin daitekeela aldarrikatzen du aditu batek baino gehiagok. Hala, Israelgo okupazioa aipatzen da ezinbestean. Grayren iritziz, “nola hitz egin daiteke arazo tekniko batez, palestinarrek Zisjordania osoaren %61ean kontrol administratiborik ez baldin badute? Nola sortu daiteke zaborra era egokian kudeatzeko sistema bat hiri bakoitzak irla isolatu bat osatzen badu?”.

Hain zuzen, zaborraren presentzia argi-agoa da PANen kontrolpean ez dauden eremuetan. Gune horietatik zenbaitzuk, Israelgo fabriketako eta kolonietako hondakinen zabortegi bilakatu ohi dira, baita harrobieta-ko eta obretako hondarren hilobi ere. Bestalde, Israelgo kontrol militarren pean dauden Zisjordaniako herrixka palestinarrek ez dute maiz zaborra jasotzeko zerbitzurik. Bertako biztanleak, nekazariak gehienak, hondakin organikoekin konposta sortzen dihardute hamarkada luzez.

“Palestinarrek Zisjordania osoaren %61ean ez dute kontrol administratiborik. Nola sortu zaborra era egokian kudeatzeko sistema bat hiri bakoitzak irla isolatu bat osatzen badu?”

Alice Gray, ekologoa



Zisjordanian 1,3 kg. zabor sortzen du biztanle bakoitzak batez beste egunean. Zabor horren %60 organikoa da.

Iheslarien guneak ere aginte-ezaren biktima garbiak dira. Palestinako errefuxiatuez arduratzen den Nazio Batuen Erakundearen UNRAW agentziak du iheslarien guneetan zaborra jasotzeko ardura. Sarri ez da hala egiten, eta errefuxiatuek kontenedoreetako zakarra erretzen amaitzen dute. Hala, UNRAWk udalerrien esku jarri du zaborraren kudeaketa. Iheslariak, ordea, ahaztura salatzen dute. “Biztanle ikusezinak gara, eta inork ez du erantzukizunik hartzen. Batzuetan asteak igarotzen dira zaborra jasotzen duten arte”, kritikatu du Fadik; Deishe iheslarien gunean etxez etxe plastikozko poltsak jasotzeaz arduratzen da bera.

Zaborraren kudeaketan estrategia falta dagoela argi diote Palestinako agintariak, baina estrategiarik egonez gero, hura inplementatzeko testuinguru politiko egokia falta dela argudiatzen dute. Edonola ere, arazoak badu bere sustraia gizartean, alegia, palestinarrek azken hogeitaz urteotan bizi izan duten eraldatzean. Bada, zaborraren errua zein neurritan du testuinguru politikoak, eta zein neurritan du gizarteak berak?

Erroen bila

Sophia Stamatopoulou-Robbins antropologoak bi urtez aztertu du zakarraren arazoa Janin hirian. Bere ustez, lurralde okupatuan ezarri den paisaia politikoaren adierazle da: “1960ko hamarkadara arte zaborra ez zen kasik existitzen... Orain hesietan, bide ertzetan, zelaietan... plastikozko poltsek palestinarren gogo-aldarteak erakusten dute”.

Iritzi berekoa da Rifat Qassis analista politikoa: “Intifaden garaian desobedientzia zibiltzat hartu ziren jokabideak *modus vivendi* bila-

ZABORRA PALESTINAN



NBERen UNRAW agentziak du iheslarien gunetan zaborra jasotzeko ardura. Sarri ez da hala egiten, eta errefuxiatuek kontenedoretako zakarra erretzen dute

troliek ez izatearen sentipenak zaborrerekiko ardura gutxietsi du. Bestetik, ordea, Mendebaldean plastikoen eta kontsumo gizartearen etorrerak eragin zuen kutsadura gogoratu beharko genuke”.

Marcosek, berriz, alde teknikoari heltzen jarraitzen dio: “Inork ez gaitu zaborra leihotik botatzera derrigortzen. Errealitate nahiko berria da guretzat eta kontzientziazioa falta zaigu”.

Kasuak kasu, zaborrak paisaia zatartzen duela eta zabortegien aldeko apustu garbia egin dutela adierazi dute Ingurumen ministeriotik. Begi bistatik kendu eta ezkutatu, hori egingo dela dirudi. Birziklatzearen eta berrerabiltzearen aldeko apustu ausartagorik ez da oraindik proposatu. ■



katu dira egun. Egitura sozialak galdu ditugu eta palestinarrok gure komunitateen aurka erreboltatzen hasi gara. Halere, Mendebaldean ez bezala, hori guztia kontrolatzeko araudirik ez dugu”.

Hortaz, gizarteaz zabaldutako axolagabekeriaren irudi al da zaborra? Grayk analisi bikoitza du: “Bai eta ez. Batetik, ezeren kon-



Baeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Laguntzaileak:

ekar berria



Antolatzailea:



ZIENTZIA EGUNEN
ELHUYAR
KOMUNITATEA



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Esku zuriak kanpora Hegoafrikatik

JOAN ZEN abuztuaren 16an albiste izugarri bat zabaldu zuten albistegi guztiek, gupidarik gabeko eguzki ahaltzu batek mantentzen gintuen lozorrotik esnaraziz: Hegoafrikako poliziak bertako 34 meatzari hil zituela aipatzen zuen berri izugarri hark. Albistearekin batera eskaini ziguten bideoan garbi-garbi ikus genezakeen poliziak, zuriak gehienak, greban zeuden meatzariak nola hiltzen zituzten banan-banan ehizean baleude bezala.

Langileek bi aste zeramatzen platinoa lurreko errailetatik atera gabe, haizetan, meategiko inguruko lurraldeetan eserita jornal igoera eskatzen, ez baitzaie jateko ere iristen, bada, tiroz isildu nahi izan zituzten.

Apartheid –bazterketa afrikaner hizkuntzan– garaiko legea berrezarritik –hilketaren lekuan zegoen edonor hiltzailea zela leporatuz– poliziak 260 meatzari espetxeratu zituen beren lankideen heriotzaren erantzule bezala harturik.

Winnie Madikizela-Mandelak, Nelson Mandelaren emazte ohiak, 2010eko ekainean argi esan zuen botere ekonomikorik gabe ez zegoela askatasun politikorik

Horrela bat-batean ohartu gara XX. mendeko erreboltarik justuenetako bat ez dela amaitu oraindik. Hala ere, irailaren zortzian ehun bat preso aske utzi zituen kargurik gabe Hegoafrikako Gobernuaren presidentek. Orain, Zuma presidentek meatzariak espetxeratzeko agindua eman zuen fiskala auzipetzeko eskaera egin beharko du, akaso.

Bere 100. urteurrena ospatu duen ANCek –Afrikako Kongresu Nazionalak– apartheidia une gogorrean zegoenean nahitaezko jokabide historikoa izan zuen Nelson Mandelaren zuzendaritza-

pean, baina ez du jakin izan bazterketaren aurkako helburuak azkenetaraino eramaten, oraingoz behintzat. Azken hemezortzi urte hauetan aginte ekonomikoa zurien eskuetan geratu baita.

Gogoratu ANCen baitan alderdi politiko bat baino gehiago batzen direla, joera desberdinetako pentsaerak elkarturik.

Nire ustez memento odoltsu haietan Nelson Mandelaren lehentasun garrantzitsuena Hegoafrikako gehiengoentzat botere politikoa lortzea izan zen, joera desberdinak, zauri ikaragarriak areagotu ez zitezten.

Hala ere, hemezortzi urte hauetan apartheid ekonomiko eta soziala ukitu gabe geratu da, errekurtsio gehienak, aberastasunak, gutxiengoak diren zurien esku ilunpetsu, madarikatu, krudeletan geratu dira.

Winnie Madikizela-Mandelak, Nelson Mandelaren emazte ohiak, 2010eko ekainean argi esan zuen botere ekonomikorik gabe ez zegoela askatasun politikorik.

Madikizelak Soweton –Johannesburgoko langile auzoa– bizitzen jarraitzen du. Bera izan zen, Nelson Mandela eta ANCko beste buruak espetxeratuta edo erbesteratuta zeudela, apartheidaren aurkako borroka aurrera eramanez, askotan bere bizitza eta alabena arriskuan ipiniz. Guztiz txundigarria da, Nelson Mandelaren irudia begirune handiarekin erakusten diguten bitartean, emakume ausart, borrokalari honen etxura aldiz, deabrutua ezagutarazi nahi dutela, men-debaldeko komunikabideek behintzat.

Hegoafrikarrek bazterketaren beste erronka bat daukate orain aurrez aurre. Ekonomia neoliberal hau erroto aldaitzea.

Platino meategiaren jabe den Britainia Handiko Lonmin enpresak sua piztu du, grebalariak erail eta bizirik geratzen direnei eguneroko bizitza duina ukatuta.

Bakoitzari berea ematea da bake guztien oinarri. ■







JOSU SANTESTERBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦

Bezpera

OSO INTERESGARRIA Bereziartuak Saizarbitoriari egin eta ARGIAN argitaraturiko elkarrizketa. Kezka bakar batean sentitu naiz idazle donostiarraren guztiz kide. Transkribatuko dut: “Irudipena dut zerbaiten bezperan gaudela eta ez garela enteratzen. Edozer gauza gerta daiteke eta hemen gaude (...). Nire gaztetako galderetako bat da zer sentitzen ote zuen jendeak 1936ko uztailaren 17an, Donostian adibidez. Gerra bezperan tranbia gidaria bere lanera joan al zen normal? Baserritarra azokara normal? Ez al zuten ezer nabari?”

Nik irudipen berdina daukat duela denbora franko. Zerbaiten bezperan gaudelakoa, alegia. Zerbait larri, esan beharrik ez dago. 36koa bizi zuten batzuei egin izan diet nik inoiz Saizarbitoriak egiten duen galdera, eta beren erantzunetatik atera dudana inpresioa da, hala edo nola, denek espero zutela zerbait. Aurreikuspenak gertatuko zenaren larritasuna kalkulatzear ziren ezberdinak.

Orain, aldiz, gizartea lo dago. Txororen bat edo beste alde batera utzirik, inork ez bide du ezer larririk espero. Edo espero badu, ondo isilik dago. Baina, sinesteko da gainbehera ekonomiko honek ez duela maila bereko ondorio politikorik izango? Datuak kezagarriak dira, eta nahia-go nuke okertuko banintz, guztiz, baina jar gaitezen

okerrenean –niri bururatzen zaidan okerrean, nork daki okerragoa ere ezin ote den izan–: Grezia euro-eskualdetik aterako ote den, Greziaren atzetik nortzuk joango diren, eta euro-eskualdea bera desagertuko ote den, duela urtebete alderantzizko utopia desagertzeko zela zirudien; orain, aldiz, enpresa handi guztiek, analista guztiek, ekonomialari guztiek aintzat hartzen duten posibilitatea da. Hau, aurreikuspenik txarrenak etengabe bete diren urte baten ondoren. Euro-eskualderik gabe, edo Espainia eurotik kanpo, nork galaraziko die gero eta indar handiago hartzen ari diren ultraeskuindarrei nahi dutena egitea? Estrasburgok ez behintzat. Bestetik, gogorarazi behar da zeintzuk diren ultraeskuindarren nahiak? Gogora ezazue programa: Autonomia estatua desagitea, zerbitzu publikoak pribatizatzea, alderdi politikoak ilegalizatzea, presoiei bizi arteko kondenatza ezarri ahal izatea, eta abar. Horiek horrela, jeneral bibotedun galiziar txiki bat guztiaren buru izendatzea hurrengo pausu logikoa baizik ez litzateke izango. Edo

Gizartea lo dago. Txororen bat edo beste alde batera utzirik, inork ez bide du ezer larririk espero. Edo espero badu, ondo isilik dago. Baina sinesteko da gainbehera ekonomiko honek ez duela maila bereko ondorio politikorik izango?

agian ez litzateke beharrezkoa izango, aski litzatekeelako “beltzezko gizona”, murrizketarik ezagutzen ez duen *maderotegia* lagun duela.

Katastrofismoa? Hala bedi, zinez. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IRAKASLEA, IDAZLEA

Pribilegiatuak

MAITE DUGU paradoxa, nonbait: gero eta okerrago gauden honetan, inoiz baino jende pribilegiatu gehiago omen dago bazterrotan. Hala adierazten dute hainbatek eta hainbatek, apaltasunetik, espanturik gabe, pribilegiatu sentitzen direla egunero lanera joateko aukera dutelako. Lana dutelako. Soldata dutelako.

Kontu aski ezaguna da perbertsioa hizkuntzatik hasten dela maiz, mundua izendatzeko moldetik; izan ere, orain lana duen pertsona pribilegiatua da, duela gutxi arte ez bezala. Ekonomiaren izorramendua tar-teko, pribilegio bilakatu berri da lanera joa-

tea. Bistan denez, lan egiteko pribilegioaren aferatxo hau enplegudunak enplegurik ez dutenen ondoan jartzetik sortua zaigu.

Eta oker gaude: soldatapeko langileak ez dira pribilegiatuak; izan autonomo, funtzionario edota enplegatu. Duintasun ekonomikoa ez da pribilegio, eskubide baizik; gu babesten –eta berresten– gaituzten lege idatziek esaten dutenaren arabera behintzat. Baina, paradoxa berriz ere ate joka, zuzen gabilta: eskubideak dituztenak pribilegiatuak dira. Gero eta gutxiago, alegia. ■





Mikel Garcia Idiakez

♦ ARGIA.COM-EKO ERREDAKTOREA

Bermerik gabeko kontseilu nuklearra

ONDO BIDEAN, hurrengo urtean itxi lezakete Garoñako zentral nuklearra, baina arrazoi –interes– ekonomikoengatik hartutako erabakia litzateke, ez Espainiako Estatuko zentralik zaharrenak dituen segurtasun arazoengatik. Urte hauetan guztietan Garoña zabalik mantentzearen aldeko jarrera izan du Espainiako Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak (CSN). Izan ere, zein sinesgarritasun izan dezake erabat politizatua dagoen eta orain arte industria elektriko nuklearraren mesedetan jokatu duen Kontseiluak?

Abiapuntua bera da esanguratsua, alderdi politikoek aukeratzen baitituzte Kontseilua osatzen duten bost kideak: PPK bi (Fernando Vicente Castelló eta Antonio Colino), PSOEek beste bi (Carmen Martínez eta Rosario Velasco) eta CIUK bat (Antoni Gurgu). Nabarmena da CSNren politizazioa: PPKo diputatu izan da Castelló, eta alderdi horren bozeramaile Industria eta Energia gaitan. Velasco eta Martínez PSOEko diputatu izan dira eta Gurgu Industria Saileko zuzendari orokorra izan zen CIUrekin, Kataluniako Generalitatean. CSNrako bere hautagaitzaren kontra bozkatu zuen Iniciativa per Catalunya Verds alderdiak, “profil oso pronuklearra” izateagatik. Industria nuklearrarekin lotura zuzenena Colinok dauka: ingeniari elektriko nuklearra da eta Endesako sail nuklearreko zuzendari eta hondakin nuklearrak arduratzen den Enresa enpresako presidente aritu zen, Kontseiluan sartu aurretik.

Garoñaren kasuan, bi erabaki nagusi hartu ditu CSNk urteotan. 2009an, martxan jarraitzeko bai-

mena luzatzea ebatzi zuen, nahiz eta zentralak ez zituen bete aurretik eskatutako baldintzak (kablesare elektrikoaren ordezkatzea eta larrialdietako aireztatze sistema konpontzea). Zentralak martxan jarraitzeko ez ziren oztopo izan errektorearen ontziak korrosioaren ondorioz dituen pitzadurak. Aurten ere, 2019ra arteko luzapena gomendatu zuen, Europar Batasunak eskatutako “estres probak” egin aurretik.

Estatuko beste zentralen kasuan, Vandellós II zentraleko agintariek hodi bateko korrosioa ezkutuan mantendu zuten, baina euren jokaera kritikatzeko txostena manipulatu zuen CSNk (2001). Zentral horretako ontziaren korrosio maila altua zela jakin arren, martxan jarraitzeko oniritzia eman zuen CSNk (2004), “arrisku maila handiagoarekin”, gerora onartu zuenez. Ihes erradiaktibo bat bost hilabetez ezkutuan gordetzeagatik (2007), inputatuta daude Ascó I zentraleko hiru zuzendari eta CSNko ikuskari bat –zentral bakoitzean CSNko bi ikuskari daude–. Gehiago dira aurrekariak, eta guztiek ere agerian uzten dute enpresa elektriko nuklearrarekin eta karguan jarri dituzten alderdi politikoekin duten lotura hautsi arte –alegia, beste irizpide batzuen arabera aukeratuak izan arte–, nekez izango direla CSNko kideak benetan autonomo eta independente dagokien lana egiteko: zentral nuklearren –hertararen– segurtasuna bermatzea. Osterantzean, bestelako interesen menpe dagoen erakunde izaten segituko du, itxurak gordezko erabilia. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Esne txarraren bentajak



Aitor Sarriegi



Doinua: Andre txarraren bentajak.

Euskal Herriko esnearentzat (a ze legea hauena) euskara hutsez jartzea nonbait billaetan billaena. Ez da bakarrik esne txar hori Kaiku ta enaparauena zigorgarria izatea da ni asaldatzen nauena.

Berdin zait zein den ontziratoki Soria edota Marte baina jokaldi honek boomerang efektoren bat lekarke euskaldun askok Kaikuren gaiak ez ditu izan aparte saltzeagatik zer saltzeko prestatu dauden ikusi den arte.

Monopolio usaina dakar atzetik berez berriak baina ez dute ongi asmatu nola mugitu gerriak. Horrengatik beharko ditu biharko Euskal Herriak ekoizpen mota berriak eta kontsumo mota berriak. ■



SORTUKO DIRA BESTEAK

IRUÑA
GAYARRE ANTZOKIA
IRAILAK 22
21:00tan

Eñaut Elorrieta
Mikel Urdangarin
Alex Sardui (Gatibu)
Pier Paul Berzaitz
Arantxa Irazusta
Petti
Ametz Arzallus



Antolatzailea: Laguntzaileak:



argia anoa
komunikazio grafikoa



berria Hamaika



Noticias
Eres lo que lees



Salmenta: leihatila eta
www.teatrogayarre.com
Karrikiri denda

ERDIKO KAIERA

MARÇAL FORÉS

«Eremu estuan mugitu naiz, absurdoa izateko arriskupean»

Talentu gazteak deskubritzea helburu duen Zuzendari Berriak sailean, *Animals* filmarekin hartuko du parte Donostiako Zinemaldian Marçal Forések (Bartzelona, 1981). Kataluniako Zinema eta Ikus-entzunezko Eskolatik atera da bera, hain justu talentu berriak sustatzeko xedez lan egiten duen eskola eredugarritik.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Oskar Orengo

Egin dituzun film laburretan (*Yeah, yeah, yeah* eta *Friends forever*) eta *Animals* pelikulan hainbat elementuz osatutako unibertso pertsonala osatu duzu. Adibidez, denetan bizitzaren etapa berari heltzen diozu: nerabearoa.

Proiektu berri batean pentsatzen jartzen naitzanean modu batera edo bestera ateratzen da beti. Heldu izateko trantsizioari aurre egin behararen krisiarekin dago lotuta, gauzak norberaren baitatik eta gozamen hutsetik bizi dituen haurra izateari uztearekin. Heltzeak esan nahi du gauzak gehiago erlatibizatzea, tonu grisak ikusten hastea, bestelako emozioak bizitzea. Erakargarria zait une hori, non emozioak oraindik oso intentsuak diren, baina horiek kontrolatzen saiatzera behartuta

zauden, adin bat duzulako jada. Gaztetxo zarenean batzuetan gauzak oso bortizki bizi dituzu eta denok pasatzen dugun etapa kritikoa da: krisi hori irudikatzeko aukera interesgarria iruditzen zait.

Etapla ilun eta tragiko gisa irudikatu ohi duzu nerabearoa.

Niretzat oso etapa tragikoa da. Nire kasuan ez zen ezer gertatu markatuta geratzeko modukorik, baina galera dago, haurra zarenean daukazu eta sentitzen duzun purutasuna galtzen duzu. Deserrotze gisa irudikatzen dut. Munduaren ikuspegi garbiagoa ematen dizulako heldutasunak hobeto sentiarazten zaituela erakusten du hainbatek bere lanetan,

“Niretzat oso etapa tragikoa da nerabearoa, deserrotze gisa irudikatzen dut”.





baina nik kontrakoa ikusten dut, bat-batean mundua eguzkitako betaurrekoekin ikusiko bagenu bezala.

Bigarren mailako pertsonaia oso potenteak eraikitzen dituzu.

Pelikulako protagonistak oso basatiak egiten dituzunean, azkenean karikatura izaten bukatzen dute eta ez dira sinesgarriak, kostatzen zaizu haiekin enpatizatzea. Konturatu naiz astakeria bat edo mundiala iruditzen zaizun zerbait irudikatu nahi duzunean –baina protagonistak egiten badu absurdoa litzatekeena–, bigarren mailan jar dezakezula eta gozatu. Bonba bat izan daiteke, zartakoa ikusleari, edo barre algararako motibo.

Etxeko zigilua duzu kutsu surrealista. Fantasia eta errealtatea nahasten dituzu, baita *Animalsen* ere. Zer iradokitzen dizu surrealismoak?

Oso dibertigarria iruditzen zait, ideia-asoziazioak beti erakarri nau, pinturan adibidez. Saihestu ezin dudana zerbait da, pelikulan elementu fantastiko bat sartzen dudana arte ez dut benetan gozatzeko. Gustuko dudana ez da eremu fantastikoa genero gisa jorratzea, baizik eta errealtatea eta fantasia banatzen dituen marra ezabatzen saiatzea. Imajinaziorik gabe ez naiz gauza funtzionatzeko, seguruenik, dibertigarriagoa delako istorioak modu horretan kontatzea, edo estatusunean jartzen zaituzten egoerak planteatzea. Nire pelikuletan, zati fantastikoa beti dago lotuta desirari eta nahiei, pertsonaiek gertatzea nahi duten horri; itxaropen horren pertsonifikazioa da fantasia, azken finean. Errealtateak ez diezaiola imajinaziorari atea itxi. Gainera, nerabezaro garaiarekin bat egiten du nolabait, fantasiaren eta errealtatearen arteko mundu horrek.

Musika funtsezko elementua da zure pelikuletan. Aukeratzen dituzun taldeak kontuan hartuta, proposamen alternatiboak sartzeko aprobeztatzen duzu?

Talde batean aritu nintzen, lagun musikariak

Pelikulako fotogrametan, Pol protagonista (Oriol Pla) eta haren hartza. Eskuinean, Martin Freeman aktorearekin.

ditut eta gustuko dudana aukeratzen dut, bizi ditudan gauzez hitz egitea gustatzen zaidalako nire lanetan, nire munduaz, soinu-bandatik hasita. Eta bai, proposamen alternatiboak sartzeko saiatzen naiz, *main stream*a jartzeko badago dagoeneko *Los 40 principales*. Ederra da pelikula batean zure gustuko musika sartu ahal izatea, zerbait desberdina erakutsi ahal izatea. Beti idazten dut musikarekin eta eszena batzuk kantuetatik sortzen zaizkit, abesti bat entzunez joan naiteke eszena jakinetako emozioak irudikatzen eta definitzen. Ez al zaizu gertatzen batzuetan pila bat konektatzen duela kantu batek momentu horretan sentitzen duzun emozioarekin? Pelikulek hori lortzen dutenean izugarria da, katarsi modukoa. Wes Anderson-ek The Who taldearekin egiten duen gisan.

Horrekin guztiarekin (gaiak, kutsu surrealista, musika, estetika, kontatzeko modua...) oso giro berezia sortzen duzu, pertsonala. Nola lortzen da pelikula batek giroa izatea?

Nik ere ez dakit, baina egia da lan guztien muntaketa fasean jabetu naizela oso eremu estuan mugitu naizela, segituan zatarrak, absurdoak izateko arriskuarekin, dramatikoa izateko. Ez dakit zerk lortzen duen azkenean dena orekan mantentzea, baina erraz okertu daitekeen bidea da eta proiektu guztietan arrastoan sartuta mantendu behar izan dut, baita *Animalsen* ere. Mundu fantasiosan sartzearekin zu zeu eror zaitezke tranpan, gehiegi kontatzeagatik edo alderantziz, galdera gehiegi uzteagatik airean, erantzun bakar bat eman gabe. Asko miresten ditut David Lynch edo Antonioni bezalakoak, gai dira zinema intuitiboak egiteko, baina barruan daramazu, edo asko landu behar duzu benetan kontrolatzeko.

Produktoreak honela aurkeztu du *Animals: Donnie Darko* pelikularen eta Gus Van Sant zuzendariaren pelikula intimoenen arteko nahasketa da. Ez da makala!

Nik ere pentsatu nuen, ez al da gehitxo? Kalitate baina –lehenengo luzea dudalako eta

“Gustuko dudana ez da eremu fantastikoa genero gisa lantzea, baizik eta errealtatea eta fantasia banatzen dituen marra ezabatzea”

ESCAC, zuzendari berriei aukera emateko formula

ESCAC Kataluniako Zinema eta Ikus-entzunezko Eskolatik jaio zen Escandalo Films, eta bien arteko Opera Prima proiektuari esker, aurrera ateratu dituzte ikasle ohien lanak, tartean Elena Trapéren *Blog*, Mar Collen *Tres dies amb la família*, Kike Mañlloren *Eva*, eta *Animals* bera. Diru-laguntza kontuengatik Escandalo produktora independente bilakatuko den arren, ESCACek prest du ordezkia ekoizpen akademikoari irteera emateko: Escac Films produktora.

Zein da ESCACen filosofia?

Lehen egunetik argi utzi ziguten fil-

mak egitera joaten ginela hara. Ez dut ezagutzen beste eskolarik non lehenengo urtetik 16 mm-ko kamerarekin errodutzen duten ikasleek. Praktika jartzen dute denaren gainetik eta asko errodutzen da, asko lantzen da harremana eskolakideekin, taldean aritzen gara... Gauza pila bat eginda ateratzeko zara ESCACetik, lan asko egin duzunaren eta asko ikasi duzunaren sentsazioarekin. Zorrotzak dira gainera, errodatu eta muntatuta ez da bukatzen ariketa, beldurrezko filma egin nahi baduzu, beldurra eman arte ez da bukatutzat ematen, eta akatsetatik asko ikasten da horrela.

Egile berrientzat bultzada garrantzitsua al da Opera Prima proiektua?

Dudarik gabe. Beste zein produktorek izango luke konfiantza bi labur baino egin ez dituen 25 urteko gazteagan? Helburua da pelikula interesgarriak egin ditzakeen talentu gazte asko dagoela frogatzea.

Zinema katalana suspertzeko ere balioko zuen.

Areago, jauzia izan da, Escandalo haizearen kontra egin du, zinema aurrera ateratzeko alternatibak dardela frogatu du eta aukera hemen bertan dagoela, film onak egiteko ez dagoela kanpora joan beharrik.

hasiberriaren akatsez beteta dagoelako dudarik gabe, elementuak dira *Donnie Darko*ekin konparagarri egiten dutenak: biek dute pertsonaia fantastikoa, misteriozua. Gainera, gutxi dira genero fantastikoan murgiltzen diren pelikula espainiarrak, ez bada terrorea edo zientzia fikzio gordina egiteko. Eta Gus Van Santen espiritutik ere badu zerbait, errespetatu eta bat egiten dut errealismo sentimental horrekin, naturalki ateratzen zait. Gus Van Santek kariño handiarekin egiten ditu filmak eta erabat asperitu zaitezke haren lanekin, edo biziki gozatu ditzakezu.

“Protagonistak oso basatiak egiten dituzunean, karikatura izaten bukatzen dute eta ez dira sinesgarriak”

Ingelesa eta katalana tartekatu dituzu pelikulan.

Mugak gainditzea gustatzen zaidalako. Peluzeko hartzak adibidez ingelesez hitz egiten dio protagonistari eta protagonistak hari katalanez, mugak hausten dituzte arduratu gabe, eta hori atsegin dut.

Zabaltegi Zuzendari Berriak sailean lehiatuko zara. Zer du eskaintzeko zuzendari berri batek? Zer hartu beharko luke kontuan epaimahaiak?

Zaila da... Interesgarriena baloratu beharko lukete, artistikoki eta eduki aldetik. Atzean defendatzea merezi duen zerbait duela ikusten duzun hori. Pentsatu ohi da zuzendari berria izateagatik lanik ausart eta alternatiboenak aurkeztuko dituztela, baina ez du zertan. Iaz Isaki Lacuestaren *Los pasos dobles* lanak irabazi zuen Sail Ofiziala eta ondo iruditzen zait hain autore ausarta saritzea.

Freskotasuna eta ausardia behar du zinemak? Zirikatzea?

Talentua behar da, filma zirikatzailea izan daitekeelako eta aldi berean mespretxagarria eta zatarra. ■



ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

urrats euskaltegia

4. MAILA (G2) 2012-13 goizez edo arratsaldez

943-465593 · urrats@urrats.com · www.urrats.com

Euskara gutxi entzungo da; irakurri, gehixeago

Laugarren edizioan polemika ezagutu du Donostiako Zinemaldiko Zinemira sailak: bost euskal presori buruzko *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala Euskal Herriko ekoizpenari eskainitako sailetik kanpo utzi dute eta zeresana eragin du. Txintik atera gabe pasa da aldiz, ondoko hau: estreinaldien atalean film bakarra izango dela euskaraz.

| GORKA BEREZIARTUA |

“EUSKAL ZINEMAK garrantzia handiagoa izango du orain Zinemaldiaren barnean, beste edozein zinematografiak adinakoa” esan zuen Mikel Olaziregik, artean festibaleko zuzendari, 2009an Zinemira saila aurkezteko prentsaurrekoan. Aurrerapausoa zen. Beste bat. Aurreko edizioan, 2008an, Euskal Herrian egindako filmek egun bakarrean zapaldu zuten alfonbra gorria eta hura izan zen bertako produkzioak Zinemaldiko programa ofizialean tokia izan zuen lehengo aldia, hamar urtez Euskal Zinemaren Egun paraleloa antolatu ondoren. Nola ez ikusi begi onez, beraz, sail propioa edukitzea.

Hiru edizio eta lau urte pasa dira iragarpen hartatik eta 2012ko Zinemirak aurrekoek baino burrunba mediatiko handiagoa izan du inguruan, hasi aurretik ere. Ez euskal filmek berez hedabideen arreta piztu dutelako, bost euskal presori buruzko *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala sailetik kanpo geratu delako baizik.

Atzeragotik dator kontua: ekainaren amaieran Espainiako Barne Ministerioak Bildu legez kanporatzeko mehatxua egin zuen, alderdi horrek gobernatzen duen Donostiako Udalak filma diruz lagundu zuelako. Zinemaldia hasi aurretik proiektatu da bost zuzendarik egindako dokumentala Victoria Eugenia antzokiko bi pase pribatutan eta horiek eragozteko ahaleginean ere aritu da Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari, Carlos Urquijo artillero. Lerrook idazten ari garen unean Espainiako Auzitegi Nazionalak filmaren kopia eskatu duela jakinarazi du Zinez ekoiztetxeak.

Gauzak horrela, Jose Luis Rebordinosek aurtengo Zinemira aurkeztean *Barrura begiratzeko leihoak* ez egoteari buruz emandako azalpenek –“Zinemaldiak 1.800 pelikula ikus-

ten ditu, asko dira hautatzen ez direnak eta argi utzi nahi dut festibalak ez duela inolako presiorik jasan”– ez dute sinesgarritasun handirik; areago, kontuan izanda kazetari bakar batek ere ez ziola hutsune horren zergatiak galderarik egin. Presioak ez dira zertan zuzenak izan, filmaren kontra sortu den giro mediatikoa nahikoa da. Eta gainera, *excusatio non petita*...

Estreinaldi bakarra euskaraz

Pasako da kapitulu polemiko hori –zetzugabekeria gehiago gertatu gabe, espero–, baina balio beharko luke Zinemiraren orain arteko ibilbidea balantzan jartzeko, baita euskarazko zinemari dagokionez bete duen paperaz pentsatzeko ere. Film zehatz bat edo batzuk faltatzeaz gain –Jon Maiaren *Gazta zati bat* ere ez da sartu–, aurten euskal zinemari eskainitako saila inoiz baino erdaldunagoa izango baita. Joxeanjel Arbelaitzen *Leku butsak, hitz beteak* da estreinaldien atalean proiektatuko den euskarazko lan bakarra.

Inongo zinema jaialdik ez du aukeraketa irizpide linguistikoa bakarrik erabiliz egiten; balio artistikoak izan beharko luke kriterio printzipala. Baina kasu honetan ez da hala izan: *Barrura begiratzeko leihoak* baino askoz gauza eskasagoak –*gauza* nahita aukeratutako hitza da– ikusiak ditugu sail honetan eta besteetan. Eta gainera, inor gutxiri irudituko zaio zentzuzkoa euskal zinemari sail bat eskaintzea, ondoren euskarazko ekoizpenak baztertzeko.

Beharbada, problema jaiotzatik izan du Zinemirak. Goazen berriro artikulua hasierako prentsaurrekora, Mikel Olaziregiren ondoan eseri zen Blanca Urgellen adierazpenak gogoratzeko. “Euskal” hitza “adierarik zabalenean” ulertu behar dela esan zuen



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak. Alegia, irizpide geografikoa lehenetsiko zutela eta ez hizkuntza. Ez zen euskarazko lanen gutxieneko kuotarik jarri eta horrek aurtengo bezalako desorekak eragin ditzake.

24 filmen azpidatziak Interneten

Gabezia ez da Zinemiran bakarrik ikusten; euskaraz sortutako film gehiago egoteak ez du guztia konponduko; nazioarteko zinema ere bere hizkuntzan nahi du ikusle euskaldunak, baina gainontzeko sailetatik pasatzen diren atzerriko pelikulen azpidatzi gehienak gaztelaniaz eta ingelesez bakarrik aurkitu izan ditu urte askoan. Alde horretatik Zinemaldia ari da, astiro bada ere, pausoak ematen. Aurtengo 24 pelikulak edukiko dituzte euskarazko testuak pantailaren oinean.

Ekimen garrantzitsua da, azpidatzi horiek ez baitira Zinemaldian bakarrik ikusteko. Eusko Jaurlaritzak iaz martxan jarri zuen Filmazpit webgunearen bidez (www.filmazpit.eu), Donostiako hiru jaialdietan (Zinemaldia, Giza

Zinemira sailaren aurtengo edizioa abuztuaren amaieran aurkeztu zuten.

Eskubideen Zinemaldiko eta Beldurrezko Zinema Astea) erabilitako azpidatziak Internetetik deskargatzeko aukera dago, baita Animabasauri, Zinebi eta Mendi Zinema jaialdietakoak ere. P2P bidez filmak eta telesailak deskargatu dituen edonork ezagutzen duen SRT formatuan eskaini dituzte, erabiltzeko eta partekatzeko erraz.

Interneti esker geroz eta ikusle gehiagoren aukera da pelikulak jatorrizko bertsioan azpidatziekin ikustea. Askotan ordea, ez da euskarazko azpitolurik egoten eta hiztun komunitatea bakarrik arduratu da horiek sortzeaz eta banatzeaz –gaur egun, Luistxo Fernandezek bere kabuz sortutako Azpitoluak.com atariak biltzen ditu euskarazko azpitolu gehienak–.

Ikus-entzuleen joera hori egonkortzen doan heinean –jadanik egonkortu samarra ez badago–, norbanakoen ahalginaz gain, erakunde publikoek ere izango dute esateko, baina batez ere, egiteko zerbait. ■



ZINEMALDIA
JARRAIPENA ETA KRITIKAK
EGUNERO
ARGIA.com-en

Mikel Garcia eta Gorka Bereziartuaren **blogetan**



Bularra ematearen magia

GOSEAK dagoen haur jaioberriaren nigarra du gai nagusia liburu eder honek, eta bularra emateak duen magia.

Collage teknikaz ilustratua, irudiek ukitzeko gogoia ematen dute, paper pusken zimurak lisatzekoa, ondo kolatu gabe diruditen ertzak sakatzekoa. ■



Magia!


Txaro Pita,
Madalena Matoso.

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea.
Kartoizko azala.
QQO - Txalaparta. 2012.

Euskal ilustrazioaren panorama aztertu du Behinola aldizkariak

AZALEAN uztaileko data daraman arren, heldu berria da plazara *Behinola* Haur- eta Gazte-Literatura Aldizkaria, eta euskal ilustrazioaz dihardu nagusiki. Hala, argitalpen honetan esku hartu izan duten ilustratzaile guztien iritziak kontuan hartuta, egoera orokorraren mapa osatu du Imanol Mercerok *Hitz eta Pitz* atalean. Aitziber Alonso, Eider Eibar, Dani Maiz (zenbaki honen azalaren egilea), Elena Odriozola, Iñaki Martiarena edota Jon Zabaleta aurkituko ditugu, besteak beste. *Hizpide* sailean, orain arteko ibilbidearen erreposo sakona egin du Dani Maizek, 1900 urtetik hasi eta gaurdainokoa. Sail berean, Mariasun Landa idazlearen eta Asun Balzola ilustratzailearen arteko konplizitatea eta lan egiteko modua aztertu ditu Jone Arroitauregik, *Munia eta Iboldiren benetako historia* artikuluan.

Mikel Ayerbek, bestalde, album mutuak edo hitzik gabeko album ilustratuak izan ditu hizpide *Hitzatzean* sailean, eta Patxi Zubizarretak Marguerite Yourcenaren *Wang-Fo nola izan zen salbatua* ipuina moldatu du *Hitzontzi* sailerako. ■



[Izenbururik gabea]


Behinola Haur eta Gazte Literatur Aldizkaria.
25. zenbakia. 2012ko uztaila.
Galtzagorri elkarteak.

Helduen literatura | NOBELA

Itzulera baten historia.

Martin Ugalde.

Elkar, 1990.



Itzulerari pultsua

MARTIN UGALDEREN idazle kasua da bitxia. Begiratzen dituzu manualak, eta exilioko idazletzat hartzen dute askok. Hain estrainioa ez dena, bidenabar: exilioan idatzi zuen bere euskarazko literaturaren zati inportante bat, batez ere antzerkia eta ipuina; besteak beste, euskarazko lehen ipuin bilduma moderno gisa hartu izan den *Itzalleak*. Baina 1990ean, aspaldi Euskal Herrian, argitaratu zuen Ugaldek exilioarekin zuzen lotuta dagoen eleberririk bat, exilioaren ifrentzu den itzulera gaitzat hartzen duena. Eta, ifrentzu guztien antzera, exilioaren itzalpean geratzen denez itzulera, bakan izateagatik merezi du arreta Ugalderen *Itzulera baten historia* eleberririk.

Venezuelatik Euskal Herrira datorren neskatxa narratzaile, bitartean eta bertan gertatzen zaizkionak kontatzen dizkigu, bizipide pertsonal baina era berean unibertsal izan daitekeen batean: nahiak eta ezinak, ametsak eta eguneroko gordinak, kontatu dizkietenak eta benetan direnak, gero egiatan aurkitzen dituenak. Gurasoen aberria ez da erdia, ez berea, ez jada gurasoena; itzulerak ez dakar erabateko poztasuna, ez etxekoen batasuna, ez bada utzitakoaren nostalgia gazia. Itzulerako barkua hartzen denean ez baita bukatzen exilioa. Inoiz bukatuko balitz, gaitzerdi. Eta gero daude guturrak, ez denak uste bezain aingeruak. Ai, guturrak: “Ikusten da jende txarra dela; geure jendea bada ere”.

Eta eleberririk ematen duen aberriaren kontzepzioak egiten du kirrinka gehien. Narratzailearen aitaren aberria da arrazista: “Venezuelan normala zen ahaidekoren bat beltza izatea, baina ez hemen; aita xori askotan entzun nion argudio hau Euskal Herria goraiatzerakoan”. Eta aita bera da matxista: “Zer pena zu geure familiako gizonezko nagusia ez izatea!”, diotso alaba narratzaileari. Aipatu gabe familia tradizionalaren baloreek estutzen dutela hemen bizitza. Luze gabe aitak, heriotza, nahi luke “geure lurtean gertatzea, seme edo alabaren bat ezkondu ikusi eta bilobaren bat ezagutu eta gero”. Amen.

Herrenak aipatzen hasita, esan, estilistikoki hautu arraro batzuk daudela: kontakizuna dago, adibidez, harridura esaldiz josia –ondo legoke guztira zenbat dauden zenbatzea–. Baina horiek kontuan hartuta ere, bakan izateagatik da irakurgarri *Itzulera baten historia*; hartzen diolako, fikziotik, euskal exilioaren itzulerari pultsua. Eta ondorio gisa uzten digulako sententzia bat: “Hasita nintzen pentsatzen, egiatan, neuk ez nituela inoiz aitatzok bere lurtean ikusi zituen mirariak ikusiko”. Izan ere mirariak, gauza jakina da non ematen diren. ■

Aritz Galarraga



Iglu bat
basamortuan
Lauroba.

Oihuka.
Iraupena: 54'27".
12 euro.



Gaztetasun pausatuagoa

Lauroba Donostiako talde gitarrero eta bizia da. Etiketatzekotan, gazteekin –beraien modukoekin– konexio berezia duen taldea dela esango nuke. Hala-ko oroitzapena neukan behintzat. Orain, baina, taldea disko berri honetan helduta aurkitu dut. Halakoa da izenburua ere, harremani eusteko ditugun desberdintasun eta zailtasunei egiten die-eta aipamena. Fredi Pelaezen estudioan grabatu dute eta horrek kantuei hammonda gehitzeko aukera eman die;

bost taldekidek osatzen dute Lauroba orain, teklatua batu baitzaie. Disko pausatuagoa egin dute, melodiari arreta handiagoa ematen diote eta emaitza askoz pop-rockeroagoa da, gitarren presentziari eutsita, jakina. Tartean, gainera, elektronika, power-popa, new-wavea, soka instrumentuak eta hard-rocka landu dituzte; eta opari moduan, UK Bill taldea zena omendu dute. ■

www.lauroba.org

LAUROBA

«Askotan esan digute zer egin eta zer esan arrakasta lortzeko, eta guk ihes egiten diogu horri»

"Izan beharko nukenetik ihesi noa geroa eraikitzeko baitaukat oraindik". Taldea berrinterpretatzeko beldurrik ez?

Zer esana badugu hitzetan eta musikiari ere. Askotan esan digute zer musika egin behar dugun arrakasta izateko, edo zer esan gure hitzetan, eta guk horri ihes egiten diogu. Jendeari ere horixe egiteko aholkatzen diogu gure musikaren bidez.

Taldea dezente pausatuagoa eta poperoagoa da orain, helduagoa, esango nuke.

Disko hau lasaiagoa da. Bost taldekide izatera pasa gara, teklatua gehitu dugu, eta agian horrek ere estilo desberdinagoak ekarri ditu. Teklatuak aukera asko ematen du. Hurrengo diskoa gogorragoa egingo dugu, honen baretasuna konpentsatzeko.

Igaro dira pop-ak gazteekin konexio eskasa zuten garaiak? Balio du Euskal Herrian konektatzeko?

Ez da erraza oraindik Euskal Herrian pop musika egitea, ez dago ondo ikusia askotan. Badirudi musika guztiak gogorra eta aldarrikatzailea izan behar duela, bestela ez du baliorik askorentzat.



Euskal Herriko musika jaialdiaren karteletan ikusten da.

"Aurrean, gaurko egiak labainkor, arrain biluziak, biharko bela hutsetan loturik atzoko esperantzak". "Are zuriz egindako denbora, ur azpian ihes...". Hitz ederrak Itziar Ituñorenak.

Itziarrek asko lagundu zigun hasieran eta inoz grabatu ez ditugun abesti askoren letrak ere egin dizkigu, tartean *Odisea*. Horregatik grabatu dugu, berari eskerrak emateko nolabait. Harkaitz Canok bi

letra egitea ere izugarritzkoa izan da, baita Beñat Gaztelumendik edo Rafa Cabezak egitea ere.

Kantuak borobiltzeko ahalegin handia egin duzue, instrumentazio eta moldaketa asko. Pozik?

Oso pozik, disko berritzailea eta autentikoa lortzen saiatu gara. Instrumentu denak benetakoak dira, hammonda, isats-pianoa, haizeak, sokak, perkusioak... eta emaitzan antzematen dela uste dugu. ■



'Euskal Kulturgintzaren Transmisioa' tituluak ezagutza sortu eta hedatzea du xede

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak (HUHEZI) laugarrenz antolatu du Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu titulua. Klaseak 2012ko urriaren 10ean hasi eta 2013ko ekainaren 5ean amaituko dira. Izena emateko epea hilaren 30ean bukatuko da.

Kultur eragile ugariak parte hartuko dute

Aurreko edizioetan bezala, aditu –eta aritu– ugariak emango dituzte kultur sorkuntzari buruzko klaseak. Haien artean dira Paulo Iztueta, Mari Karmen Garmendia, Josune Ariztondo, Josean Muñoz, Laura Mintegi, Josu Zabala, Eñaut Elorrieta, Ramon Agirre, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria (argazkian), Oihane Perea, Amets Arzallus, Petra Elser eta Idurre Alonso.

“Gure kulturgintza biziberritze-ko kezkarri erantzunez, hainbat helbururi erantzun nahi die egitasmoak”, dio HUHEZIK: “Euskal kulturgintzari buruzko ezagutza barreiatua korpus baten biltzea, eta bilketa hau formazio dialogiko baten bidez transmititzea; gure kulturgintzak dituen ortzimugen eta desafioen aurrean formazio multifokal eta praktikoa egitea; eta kultur-



DANI BLANCO

gintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia partzialak beste alorretakoen eskura jartzea”.

Matrikula egiteko bi modu:

1. Eskoriatzara joan, HUHEZI fakultatera.
2. Matrikula orria bete, postan gutuna zertifikatu eta HUHEZIRA igorri (Dorleta auzoa z/g, 20540).

Zenbatekoa: 2.250 euro (hiru zatitan ordaintzekoa)
Telefona: 943 714 157

E-posta: kulturgintza@mondragon.edu
Webgunea: www.mondragon.edu/eu/ekt ■



LA TERCERA

Cheever, euskaraz estreinakoz

JOHN CHEEVER (Massachusetts, 1912-New York, 1982) idazle iparramerikarraren *Igerilaria* izeneko ipuina euskaratu du Jasone Larriagak. Armiarma.com webgunean osorik irakurri daiteke. Estreinako aldia da Cheeverren kontakizun bat euskarara ekarri dela. *Igerilaria* Cheeverren ipuin onenetako bat dela esan ohi da, 1964an *The New Yorker*-en argitaratua. Hasiera batean nobela izateko asmoa zuen, 150 orrialde bete ohar idatzita zeuzkan, baina narrazio moldea eman zion azkenean. Hartan oinarrituta, Frank Perryk film bat egin zuen 1968an (*The swimmer*), Burt Lancaster eta Janice Rule protagonista zituela. *Igerilaria* ipuina entzun ere egin daiteke *Xerezaderen Artxiboa*. *Entzuteko literatura* blogean (www.blogak.com/xalp), Bilbo Hiria irratian grabatua. Aurten 100 urte dira John Cheever jaio zela eta 30 hil zela. ■

IBERNALO

landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...







01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com

Umeak hezitzaile

FRATO, Francesco Tonucci pentsalari eta pedagogo italiarraren *alter egoa*, 1968an jaio zen. Orduan argitaratu zuen irakaskuntza sistemari buruzko bere lehendabiziko bineta satirikoa. Errealitateari ume baten begietatik egiten dio so marrazkilariak, haiei ematen die ahotsa eta haien izenean salatzen ditu guk, helduok, egiten ditugun hankasartzeak. Esku artean dugun liburua, Fratok 40 urtean egindako binetak biltzen dituena (jatorrizkoak *Con gli occhi del bambino* izenburupean publikatu zituen), gurasoei eta irakasle-hezitzaileei zuzendurik dago bereziki. Bietako bat ere ez naiz ni, baina onartzen dut pedagogo italiarrak bere bineten bidez ematen dituen kolpeetako batzuk bete-betean harrapatu nautela, lehengusina txikienei edo lagunen seme-alabei emandako lezio sasi pedagogikoak gogoan.

Marrazkiak hainbat ataletan sailkatu daude. Umearen jaiotza, haren lehenengo egunak, eskola, sexua, jolasak, familia ereduak, irakasle eta gurasoen rola... eta beste eskala batean koka ditzakegun *Ume biritarra* eta *Bake pentsamenduak* atalak, hiriek umeak nola irensten dituzten erakusten duena batetik, eta bakeaz –eta gudaz– hausnartzen duena bestetik.

“Zure arrakastarik handiena izan da satira areriotzat duen mundu konplexu horretan sartzea:



Helduon inkoherentzia salatzea du xede Fratok. Umea, tipula bihurtuta, badao jolasera; eta aita isiltasun eske, orroeka.

40 años con ojos de niño.
Frato
(Francesco Tonucci)

Graó argitaletxea.
Lehen edizioa: 2007
232 orrialde, zuri beltzean.
Neurria: 20 x 20 zentimetro.

eskolan, alegia”, idatzi dio Tonuccik Fratori liburuaren hitzaurrean. “Armada, erlijioa edo eskola bezalako instituzio handi orok ez du gustuko satiraren presentzia garratz eta sarri mingarria. Zuk, ordea, mundu horretan sartzea lortu duzu, ahotsik eta erabaki ahalmenik izan ohi ez duten umeak defendatzeko, eta hezkuntzaren hankasartzeak salatzeke, ez soilik irakasle tradizionalen erro-

reak, baita aurrerakoienek ere (...) Irakasleek zure komiki-tirak erabili dituzte klaseetan. Zatiketak eta emozioak eragin dituzte. Batzuk hasarretu egin dira; beste batzuek hunkitu egin dira; gehienek, aldiz, hausnartu egin dute, eta euren buruak marrazkietan islatu-rik ikusi dituzte”.

Fratoren zuri-beltzeko marrazkiak haur batek egiteko modukoak dira (zentzurik one- nean). Mezuak du indarra, umeen zein helduen keinu eta begiratu batzuk benetan adierazkorrak diren arren. Trazu azkar batzuekin (irudiak amaitu gabe daudela dirudi), egilea gai da unibertso oso bat kondentsatzeko. ■

Jon Torner



Xolomozko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Erresistentzia handiko lentilla

HARVARD UNIBERTSITATEKO (AEB) Zhigang Suo ikerlariak zuzendutako lan taldeak ikusmena hobetzeko erabiltzen diren lenti-llen familiako materiala sortu du, baina desberdintasun handi batekin: material berria jatorrizko tamaina baino hogei aldiz luzeago bilakatu arte deforma daiteke.

Materiala hidrogela da, hau da, lenti-llen osagai bera, baina askoz ere elastikotasun eta erresistentzia handiagoak ditu: 9.000 jouleko energia jasan dezake metro koadroko. Orain arteko hidrogel indartsuenek 700 joule baino ez dute jasaten. Propietate berriak erakusteko ikerlariak bideo bat grabatu dute. Bertan ikus daiteke 64 gramoko altzairuzko bola bat 1,86 metroko altueratik lenti-llen gainean erortzen. Lenti-llak, tranpolin baten eran, beherantz deformatu ondoren gorantz igortzen du bola.

Material berriak, lenti-llak ez ezik, kartilago erresistenteak lortzeko aukera emango du. ■



WWW.LONGITUDEONDA.COM



Kafeina Parkinson gaitzaren aurka?

McGill Unibertsitateko (Kanada) ikerlari talde batek, Parkinson gaitza duten 61 pertsonarekin saiakuntza egin ondoren, ikusi du egunero kafeina dosi jakin batzuk hartu zituztenek askoz ere portaera hobea zutela gaixotasunaren aurrean bestek baino.

ttiki.com/42239
(Gaztelaniaz)

Txanpon baten tamainako propulstzailea

MIT ikerketa zentroko (AEB) Paulo Lozanok eraikitako propulstzailearekin ezin dira koheteak Lurretik espaziora bidali, baina behin espazioan nahikoa indarra du koheteak maniobrarazteko, eta gainera askoz ere iraupen handiagoa du ohiko propulstzaileek baino. Hori guztia, txanpon baten tamainarekin.

ttiki.com/42240
(Gaztelaniaz)

Oscar Pistorius, hankarik gabeko korrikalaria

DIAADIA.COM.AR



OSCAR PISTORIUS orain 25 urte jaio zen Hego Afrikan, peronerik gabe jaio ere. Hamaika hilabete zituela bi hankak moztu zizkieten, eta handik sei hilabetera protesiak jarri zizkieten.

Pistorius Olinpiar Jokoetan eta Olinpiar Joko Berezietan parte hartzera ailegatu da. Nola? Enpresa islandiar batek espresuki prestatutako karbono-zuntzeko bi protesiren bidez. Cheetah deituriko protesiek belaunetik behera dauden hanka zatiak emulatzea lortu dute. Gure hanken funtzioak betetzea lortu da, eta oinpean kranpoiak jarri dituzte lurrari itsatsi ahal izateko. Pistoriusen kasuan, Nike kirol etxe ospetsuari utzi zitzaion kranpoien kopurua eta kokapena zehaztea.

Protesia zenbat eta luzeago izan, orduan eta indar handiagoa ematen dio erabiltzaileari. Horregatik Nazioarteko Olinpiar Batzordeak mugatu behar izan du protesien luzera, norberaren gorputzaren tamainaren arabera. ■

Protesia zenbat eta luzeago izan, orduan eta indar handiagoa ematen dio erabiltzaileari. Horregatik Nazioarteko Olinpiar Batzordeak mugatu behar izan du protesien luzera, norberaren gorputzaren tamainaren arabera. ■



Nano-belkroa kutsatzaileak harrapatzeko

Lausanako Eskola Politekniko Federalean (Suitza) uretan egon daitezkeen kutsatzaileak harrapatzeko sistema merkea asmatu dute. Sistema Chicagotik (AEB) hurbil dagoen Michigan lakuan probatu dute, eta emaitzak ezin hobekak izan dira.

ttiki.com/42242
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Gurbea eta udalatxa

ARABAR ERRIOXAN da Eskuernaga. Bertakoek hala deitzen dute, Euskaltzaindikoek bere artean lehen Uriona eta orain Villabuenana. Eskuernagan baden dena ardoa da, eta paisaia mahasti. Lehen besterik ere izango zen, fruitu arbolak, baratze, labore-soro, baso-koskor... Paisaia kulturala murriztua dute egun eta ardoak dakarren aberastasuna ikusita, zaila da joera hori iraultzea.

Mahasti artean badira oraindik lehengo haien arrastoak: errekas-toen aldamentako baratzeak eta

mahasti arteko zuhaitz eta arbola bakanak, batik bat.

Ia ahaztua nuen bat topatu dut tartean: gurbea, *Sorbus domestica*. Otsalizarraren, *Sorbus aucuparia*, hostazuriaren, *Sorbus aria* eta maspila edo basagurbearen, *Sorbus torminalis*, senidea da gurbea. Erka-meztiek eta artadiak bere dituzten lurretan hazten da ongi, baita mahastietako ipularretan eta haien arteko pendiz eta ezpondetan ere. Itxuraz, erromatarrek ekarritako fruitu arbola da gurbea. Eguzkizalea eta berozalea izateaz gain lurra karetsua eta ura tamainan duten

tokiak ditu maite. Urak Mediterraneoari ematen dizkion Euskal Herrian etxean bezala aurkitzen da. Geurean ale bakan batzuk besterik ez ditugu, erlikia bat! Fruitua, gurbe-alea, udalatxa edo udarelatxa, ia inork ez du ezagutzen eta ez da ez bildu ez erabiltzen... Fruitugintzarako hedatu zenez orain galtzeko arrisku bizian dago. Gutxi dira baina bake-bakean, luze biziko al dira. Luzeen bizi dena eta gerri zabalena duen gurbea non den dema handia dago. ■



JAKOBA ERREKONDO

Sugi

Jaki japoniarren zalea naiz. Geureen tankera handia hartzen diet, eta gustatu egiten... Hango eta hemengo jakiak eskaintzen dituen jatetxe batean izan berria naiz. Mahaikideak sushi aukera dastatu nahi eta hor dakarte zurezko oholtxo batean. Etxekoa dugu egurrerako joera eta gainekoari baino lehenago begiratu nion zurari. Deigarria egin zitzaidan,

hamalau zentimetro eskaseko puskan 90 urteko eratzunak zituen! Eta ezin tentazioari utsi. Hor galdetu diot zerbitzari japoniarrari: zer egur den ba ote dakien. Bere iritziz “sugi” deitzen duten bat omen, baina sukaldetan galdetuko duela... Bueltan, baietz hori dela uste dutela. Nik telefonoari laster galdetu diot zer arraio den “sugi” hori, eta berehala eran-

tzuna: *Criptomeria japonica*. Bat-batean zuhaitz horren burrunba etorri zait burura. Japonian ia sakratua da. Urte batzuk badira etxeko sailetan basotxo bat landatua dudala eta poliki dator. Deigarriena, hala ere, sukaldariak eta zerbitzariak zuraren kultura berea izatea. Hemengo-
ei galdetu behar! ■



Ustelkeria urbanistikoa XVII. mendean

PETER PAUL RUBENS



SAN LORENZO DE EL ESCORIAL (ESPAINIA), 1598KO IRAILAREN 13A. Filipe II.a erregea hil zen, eta haren seme Filipe III.a koroatu zuten. Espainiako errege berriak hartutako lehen neurria Francisco de Sandoval lagun mina—orduan Deniako markesa, aurrerago Lermako duke izango zena—balido izendatzea izan zen. Erregeak politikaz kanpoko aferetan ematen zuten ia denbora guztia: antzerkia, pintura eta ehiza ziren haren zereginak. Eta, hala, praktikan balidoa izan zen Espainiako agintari nagusia. Konfiantzazko lagun taldea bildu zuen, eta gorteko kargu eta titulu garrantzitsuenak senitartekoen eta lagunaren artean banatu zituen. Mesedean banaketan ez zuten bere burua ahaztu, eta 1599an, Lermako dukerria eskuratu zuen.

1601an Lermako dukea erresumaren hariak mugitzen hasi zen: gortea Madrildik Valladolidera aldatzea erabaki zuen. Arrazoi teorikoa Filipe III.a Maria Austriakoa erregearen izeba zaharraren eragin kaltegarritik aldentzea zen. Praktikan, aberastea beste asmorik ez zuen. Eta erregea konbentzitzea erraza zen: nahikoa izan zuen Valladoliden ehizarako eremu hobeak zeudela esatea.

Gortea hiriz aldatu baino sei hilabete lehenago, Lermako dukeak

Francisco de Sandoval, Lermako dukea (1553-1625). Espainiako Filipe III.a erregearen balido kargua baliatu zuen etxebizitzekin eta lur sailekin espekulatzeke.

hainbat orube, etxe eta lur sail erosi zituen. Gortea han kokatzean, balidoaren ondasun berrien prezioak izugarri egin zuen gora. 1605ean, Huerta de la Ribera izeneko lur saila saldu zion koroari 30 milioi marabediren truke; horregatik, eremu horrek Huerta del Rey du izena gaur egun. Baina balidoaren jokaldi onena etortzeko zegoen: 1606ko urtarrilaren 30ean gortea atzera Madrilerera eraman zuten.

Madrilgo Udalak zuzenean Lermako dukearekin negoziatu zuen gortearen itzulera. Madril hiriburu izatearen truke hiriak 250.000 dukateko—93 milioi marabedi inguruko—dohaintza egin zuen; kopuru horren bi herenak koroarentzat izan ziren, eta beste herena negoziatzailearen zakura joan zen.

Gainera, Madrilgo alkatearen laguntzaz, dukeak zenbait inbertsio egin zituen Madrilen, hiriak gortearen egoitza izateari utzi ondoren, eta, beraz, etxebizitzaren prezioek nabarmen behera egin ondoren. Eta, nola ez, prezioek izugarri egin zuten gora koroa Madrilerara itzuli zenean.

Baina Lermako dukeak aberasteke aukeratu zuen metodoa nabarmenegia zen, eta hark ehundutako ustelkeria sarea agerian geratu zen. Balidoaren hurbilekoak epaitegietara eraman zituzten, eta bazirudien dukeak ere bere zigorra jasotzea denbora kontua izango zela. Orduan, Erromara jo zuen kardinal kapela eske. Kardinalgoa, epaitua izateko immunitatea alegia, 1618an lortu zuen. Valladoliden hil zen, 1625ean, auzitegietatik pasa gabe, baina herriak kantuz epaituta:

Para no morir ahorcado, el mayor ladrón de España, se viste de colorado. ■



Arrastoak

Zorioneko Renoirra eta zorigaiztoko Picassoa

Iaz, Shenandoahko (Virginia, AEB) emakume batek Renoirren margolan bat erosi zuen azoka batean, dolar gutxi batzuen truke, obraren balioa jakin gabe. Berriki konturatu dira obra Renoirrena dela, eta 75.000-100.000 dolar balio dezakeela. Negozio biribila Virginian emakume horrentzat.


Evansvilleko museoak (Indiana, AEB) beste maisulan bat deskubritu zuen abuztuaren amaieran, 50 urtez biltegi batean ahaztuta egon ondoren: Picassoren *Kapela gorridun emakumea eserita* beirakia. Museoak, zerbitzu kulturala eskaintzea helburu izan arren, Picassoren lana enkantean salgai ipini behar izan du, obra museoan mantentzea—segurtasunagatik, nagusiki—obra erostea bezain garestia baita ia. Artearekin negozioa egin daiteke; kultura egitea zailagoa da. ■



MICHAEL WHEATLEY

Kapela gorridun emakumea eserita lana aurkitu dute AEBetako museo bateko biltegian, ia 50 urte han egon ondoren. Aurki, ziurrenik, bildumagile pribaturen baten kutxa gotorrean gordeko dute.

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:


1. Ogia egiten edo saltzen duena. Denbora bitarte laburra. 2. Jasotzen. Rubidioaren sinboloa. 3. Landetan kalte handiak eragiten dituen intsektu. Umegaia, enbrioia. 4. **Argazkiko musika taldea**. Anfibio mota, igelaren antzekoa baina gorputz lodiagoa duena. 5. Talioaren sinboloa. Hil guztietan. Umeak hazten dituen pertsona. 6. Zuhaitz mota. Lituaniako. 7. Burutzea. **Animalia Lotsatuen...**, **taldearen azken diskoa**. 8. Irudi geometrikoa. Bazkaltzen.

Goitik behera:


1. Erretaulak. 2. Esnea edateko ontzi. 3. Begi-niniaren inguruko koloredun eraztun. Une larri. 4. Nota bokal barik. Purgagarri bezala erabili ohi den belar. 5. ..., ..., nongori, nongori, nongo alkate zara zu? 6. Zenbait musika notaz esaten da. Terbioaren sinboloa. 7. Garai, tarte. Hitzza, berba. 8. Kausaz. 9. Odolki, odoloste. 10. Abaraska. Kupela. 11. Ume. 12. Kontrakotasuna adierazteko aurizkia. 13. Onomatopeia. 14. Xumea, xehea. 15. Erara.

Sudokuak

Erraza



Zaila



Kike Amonarrizen umorea

Aduanan

Estatu Batuetako aduanako poliziek esertzeko eta itzaroteko eskatuko diote Madrildik datorren emakumeari. Dokumentazioa hartu eta beraietako bat bulegora sartu da.

Handik ordu laurdenera, paper bat eskuetan itzuli da. Beste poliziak hala galdetu dio:

– Ezer jakin al duzue?


– Bai! 1998tik 2009ra bitartean, hamaika saltsa eta amarrutan ibilita dago emakume hau: era guztietako lapurretak eta azpikeriak egin zituen, bospasei txantaia kasu frogatu zaizkio eta ustelkeria

kasu ugaritan nahastuta ageri da gure datutegian.


- Eta 2009aren ondoren?
- Politika utzi zuen



Soluzioak



Erraza



Zaila

Ezker-eskuin: 1. Olin, Bultza, 2. Hartzen, Rb, 3. Ori, Umeika, 4. Lisabo, Apo, 5. TI, Hiltoro, Hazle, 6. Zumar, Lituaniar, 7. Egitca, Putzua, 8. Korog, Bazkartan.
Goitik behera: 1. Oholtzak, 2. Katib, 3. Ins, Men, 4. Nt, Abago, 5. Zabit, 6. Bemol, 7. Uueg, Elea, 8. Katiaz, 9. Tipoc, 10. Abao, Upar, 11. Haur, 12. Ant, 13. Zizt, 14. Laua, 15. Eran.

GREBA OROKORRA

Herritarren eskubideak lurperatzearen kontra

Irailaren 26an Hego Euskal Herriko langile eta herritarrak greba orokorrera deitu dituzte beste behin, bosgarrena 2009tik. Sindikatu eta gizarte kolektibo ugari bota dute erronka, kapitalismoak bultzaturiko murrizketa sozial eta laboralen aurrean planto egiteko.

| DANIEL UDALAITZ |

ABUZTU BETEAN ANTZERKI harrigarria egin zuten Ezkerraldeko langabetuen asanbladak eta Berri Otxoak kolektiboak Sestaoko Lanbideren bulegoaren aurrean: hileta bat.

Modu horretan salatu nahi izan zuten herritarren gehiengoari eragiten dioten murrizketa sozialak, eta biziki kritikatu zuten Espainiako Gobernuak, langabezia saria jasotze-

ko baldintzak gogortu nahi izateagatik.

Manifestariak hilkutxa zeramaten bizkarrean eta honakoa irakur zitekeen: "Hemen datzate eskubide



ARGAZKI PRESS / JON HERNÁEZ

Barakaldoko Berri Otxoak taldeak antzerki ikusgarria egin zuen eskubide sozialak lurperatzen ari direla salatzekeo.

sozialak”. Hilikutxaren inguruko lore-koroak ere lelo adierazgarria zeraman: “Murrizketa sozialek gure eskubideak lurperatzen dituzte”. Langileria doluan da. Sestaoko ekimeneko partehartzaileek salatu zuten murrizketa politikek ez gaituztela krisitik ateratzen “kontrakoa baizik”, eta hori errealitateak eta eguneroko datuek erakusten dutela azaldu zuten: “Urte luzetako borrokez lortutako eskubideak deuseztatu nahi dituzte, osasun arloan, hezkuntzan, laguntza sozialetan...”. Sindikatu abertzaleek eta eragile sozialek nahiz politikoek deituriko greba orokorra babestea eskatu zuten ekitaldian.

Horrelako ekintzek balio dute herritarren asperraldia termometroa jartzeko. Abuztua sargoria izanagatik, talde eta sindikatuak ez dira geldirik egon, eta mobilizazioekin jarraitu dute. Kapitalismo basatiak eragin ditu murrizketak, “merkatua” deiturikoak. Baina zer da merkatua? Izen-abizenak dituzten inbertitzaile handiak dira: bankuak, funts pribatuak, Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua... horiek guztiek osatzen dute “merkatua” deituriko zorigaiztoko toki hori.

“Madriletik inposaturiko diktadura ekonomikoari planto”

Murrizketak herritarren gehiengoari ari zaizkio eragiten, lanean daudenei eta langabeei, oraindik lehenengo lanik aurkitu ez duten gazteei, baita inflazioaren gorakadaren ondorioz soldatak murriztuta dauzkaten pentsionistei ere.

Testuinguru horretan, eta Espainiako ekonomia oso laster

Pentsioak, Rajoyren hurrengo jomuga

Rajoyk esaten duen aldiro ez duela honakoa edo halako neurririk hartuko, azkenean inposatu egiten du, Moncloara eraman zuten bere hauteskunde programaren kontra bada ere. Jo eta su aritu zen esanez ez zuela BEZa igoko, hori kontsumoaren kontra zihoala eta ondorioz hazkunderaren kontra, eta azkenean men egin zuten. Irailaren 1etik herritarrek balioaren gaineko zerga handiagoa ordaindu behar dute. Zapterok urtebetez ezarritako pentsioen izozketaren aurrean, Rajoyren konpromisoa izan zen ez zituela pentsioak ukituko.

Bada, berriki, Espainiako telebista publikoan egindako elkarrizketa batean konpromisoa berretsi duen arren, pentsioen sistemaren inguruan zein neurri hartuko duen jakingo dugu laster. Sistema horri likidezia falta zaio eta egoera tamalgarrion dago. Rajoyk bi gai garrantzitsu erabaki behar ditu berehalakoan. Lehenak zerikusia du BEZaren igoe-rarekin. Nola eragingo dio gizarte-segurantzari? Aurreikusitako den moduan KPIaren eragina gizarte-segurantzaren %3ra hurbiltzen bada, horrek esan nahi du Gobernuak pentsionistei ordaindu behar diela hasieran aurreikusten zen %1etik %3rainoko tartea, azaroan seguruenik hala izango baita. Estatuak 3.000 milioi euro ordaindu beharko lizkieke pentsionistei 2012ko aurrekontutik eta 2013an kopurua finkatu beharko luke. Legeak dioen moduan egingo al du hori? Beldur gara ezetz. Bigarren kontu garrantzitsua da, ea nola geratuko diren pentsioak 2013an, izoztu egingo ditu? Beldur gara baietz.

erreskatatua izango dela begi-bistakoa izanik –murrizketa gehiago ekarriz, jakina–, ELA, LAB, ESK, CGT-LKN, STEE-EILAS, EHNE, HIRU eta CNT sindikatuek greba orokorra deitu dute irailaren 26an. Deialdia hamaika elkarte, kolektibo eta eragile sozialek babestu dute jadanik. Beste talde batzuk, CCOO eta UGT sindikatuek gidaturik, ez dute grebarekin bat egin, baina mobilizazioak deitu dituzte asteotan Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan. Gainera, ez dute baztertu Espainia osoan greba orokorra

egitea. Azkeneko aldiaren sindikatu abertzaleek Euskal Herrian deitutako egunean antolatuta zuten greba orokorra eta jarraipen itzela izan zuten sektore guztietan.

Sindikatuak adierazi dute edukiz bete nahi dutela greba deialdia. Murrizketa sozialen ondorioz azkenaldian pilatu den haserrea egun horretan erakutsi nahi dute. Horrez gain, autogobernuaren kontra iragarri diren guraizekadei harria jarri nahi diete. Hargatik, burujabetza politiko eta ekonomikoaren aldarrikapena ez dute baztertera utziko egun horretan.

bankarentzat dirua herritarrontzat miseria



Euskal Herriak

hitza eta erabakia

LAB

GREBA orokorra • irailak 26



Greba deialdia Hego Euskal Herriko sindikatu gehienek egin dute eta jadanik motorrak berotzen hasi dira.

Irailaren 4an erregistratu zuten greba orokorraren deialdia Bilbon eta irailaren 5ean Iruñean. Deitzaillek kaleratutako eskuorri bateratua datu harrigarri batekin hasten da: Gobernuak 100.000 milioi euro gastatu ditu, herritarren poltsikoetatik, bankuak garbitzeko: “Inoiz ikusi den iruzurrik handienaren aurrean gaude” dio eskuorriak, eta amaieran aldarria egiten dute: “Bada ordua Madriletik inposatu diguten diktadura ekonomikoaren aurrean planto egiteko”.

Bestalde, sindikatuek mezu garbi bat helarazi diete herritarrei: irtenbideak badaude. Greba orokorra iragartzeko prentsaurrekoan LABeko idazkari nagusi Ainhoa Etxaidek adierazi zuen erreforma justifikatzeko “gezurrak erabiltzen” ari direla: “Langileria espekulazioaren esanetara jartzea eta haien aginduak betearaztea ez da derri-gorrezkoa, hautu politikoa da”.

Jadanik makina bat bilkura eta batzar egin dituzte greba orokorra

prestatzeko. Joan den astean LABek Bilbon egin zuen ordezkari sindikalekin lehen bilkura eta ELAk Gasteizen. Adolfo Muñoz ELAko idazkari nagusiak alderdi politikoei desobedienciazko deia egin zien.

Hiru urte, bost greba

Irailaren 26ko deialdiarekin, jadanik bost dira gehiengo sindikal abertzaleak murrizketen eta finantza krisiaren ondorioen kontra Hego Euskal Herrian antolatutako greba orokorrak.

Lehen 2009ko maiatzaren 21ean egin zen krisi ekonomikoaren, enplegua suntsitzearen eta patronalaren xantaiaren kontra. Bigarrena, 2010eko ekainaren 29koa, Zapaterok gidaturiko Espainiako Gobernuaren lan erreforma-

ren kontra izan zen, hala nola sozialistek inposaturiko hainbat doikuntzen kontra. 2011ko urtarrilaren 11n hirugarren greba orokorra deitu zuten sindikatuek, pentsioen erreforma zela-eta; erreforma horrekin jubilazio adina 67 urtera atzeratu zuen PPren Gobernuak eta jubilazioa lortzeko kotizaturiko gutxieneko urte kopurua igo zuen.

2012an, Rajoyren exekutiboak lan-erreforma berria onartu zuen, langileek ordura arte lortutako eskubide ugari bertan behera utziz eta kaleratzeak erraztuz. Ondorioz, sindikatuek greba orokorra deitu zuten martxoaren 29an Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan. Lehenengo aldiz Hego Euskal Herrian sindikatu nagusi guztiek deituriko greba orokorra izan zen eta eragin itzela izan zuen; greba baloratzeko orduan hain zuhurra izaten den patronalak inplizituki onartu zuen deialdiaren arrakasta. ■

Grebaren deitzaillek kaleratutako eskuorri bateratua datu harrigarri batekin hasten da: Gobernuak 100.000 milioi euro gastatu ditu bankuak garbitzeko

argia.com Irailaren 26an jarraitu greba orokorra gure webgunetik.



ISRAEL GONZALEZ

«Izorratuenak babesteko gai ez bagara, ez dizkigute lan eskubideak itzuliko»

Iruñerriko Langabeen Kolektiboak 2011ko martxoan egin zuen lehen asanblada irekia, geroztik asteartero elkartzen dira Diputazioko eraikinaren aurrean, arratsaldeko 19:00etan. Egungo enplegu politikak salatzea eta irtenbideak bilatzea dute helburu. Asanbladak bat egin du irailaren 26ko greba orokorrarekin. Israel Gonzalez (Iruñea, 1981) asanbladako kidearen esanetan “greba soziala behar du izan, laborala baino gehiago”.

| URKO APAOLAZA |

Argazkiak: Josu Santesteban

Langabetuak, oraindik estigmatizaturik daude?

Lehen urruneko kontu bat izaten zen, baina orain gero eta herritar gehiago dago langabezian. Hala ere, estigma oraindik ez da hautsi. Badago jendea etxe barruan gordetzen duena miseria, dirurik eza eta bazterketa. Egoera hori kanporatzea oso gogorra da, senide eta lagunak ikustea pobrezian zaudela.

Asanbladak urrats hori ematen laguntzen du?

Langabetuen asanbladak horretarako ere balio du, egoera berdinean dagoen jendearekin hitz egiteko, babesa emateko. Lehenengo asanbladek elkarte anonimo bat ziruditen: bakoitzak kontatzen zuen bere historia, nola bizi zuen pobrezia... Situazio oso gogorrak zeuden. Eta beste norbaiti hori guztia kontatu ahal izateak asko laguntzen du.



“Nolabaiteko lotura egon behar du lana dutenen eta ez dutenen artean, zeren eta enpresariak xantaia bezala erabiltzen gaituzte langabetuok. Hori hausten ez dugun bitartean, egoera jasanezina izango da guztiontzat”.

TERMOMETROA • GREBA OROKORRA

Zerk bultzatuta hasi zineten biltzen?

Langabetuek euren ahotik aldarrikapenak egitea beharrezkoa zela ikusi genuen. Sindikatu batzuk fabriketako despidoen kontra borrokan ari dira, baina behin kalean geratuta, lanik gabe dagoen jende horrekin ez da ezer askorik egiten, egiaz gehiengo soziala den arren. Aurrekoan datu bat publikatu zuten: Nafarroan bizi direnen %58 pentsionista da edo langabezia dago. Jende hori mobilizatu egin behar da.

Sindikatuak animatu zintuzteten beraz...

Bai, lehenengo bilera langabezia zeuden hainbat sindikatutako militantek antolatu zuten, eta hortik irten zen asanblada irekia egiteko ideia. Gaztelu Plazan 40 lagun inguru elkartu ginen eta dekalogo bat adostu genuen.

Iruñean langabetuak lehenago ere antolatu izan dira, haien oinordeko al da hau?

1980ko hamarkadan langabetuen asanblada bat izan zen Iruñean. Gure asmoa ez da horren jarraipena izatea, guk langabezia dagoen jendea elkartu eta gure egoera salatu nahi dugu. Hemen badirudi inor ez dela errudun; ez da posible prentsaurreko batean mila langabetu gehiago daudela esan eta horren ardura inork ez hartzea.

Zuen leloa da paroan zaudetela baina geldirik ez. Bi urteotan egindako ekimenen artean, zein nabarmenduko zenuke?

Hilero-hilero asanblada ugari egin ditugu; parte hartzaileen kopuruak gorabeherak izan ditu, militante finkorik ez duen kolektiboa gara-eta. Oinarrizko errentaren gaia asko landu dugu. Nafarroan artikulu batzuk onartu dituzte langabetu gehienak laguntza horretatik kanpo utziz. Beste laguntza bat sortu dute lana lortu ahal izateko, baina txistea ematen du, uste dut 19 lagunek baino ez dutela jaso. Nafarroako Gobernuak gizarte-ongizateko egoitza okupatu genuen, egun horretan ongizateatik kanpo uzten gintuztela salatzeke.

Nafarroan krisiak gogor jo du, langabezia gehien igo den lurraldea da.

Enpresek krisia aprobetxatu dute “plantilla optimizatzeke”, azken batean jendea kaleratzeko. Horretan lagundu dute Zapateroren lehenengo erreformak eta Rajoyren azkenekoak, baina gobernu politikek ere zerkusia dute. Sailburuak ez dira kapaz izan EEE bat bera ere atzera botatzeko, aztertu ere egin gabe sinatu dituzte, sinatzea beharrezkoa zenean... Egiaz, enpresek barra-librea izan dute langileak botatzeko.

Datu handien atzean badaude beste batzuk: epe luzeko langabeen gorakada, gazteen langabezia tasa handia... Zerk larritzen zaituzte azkenaldian?

Enplegu politikek jada ez gaituzte harritzen, enplegu publikoa murrizteko dinamikan sartuta baitaude. Azkeneko kasua Iruñeko Alde Zaharreko liburutegikoa izan da:

enpresa pribatu batek gestiona-tuko du, Gobernuak ez duelako aurrekonturik bi langileren soldata segurtatzeko. Gehien larritzen gaituena da jendea babesgabetasun erabatekoan geratzen ari dela. Badaude murrizketa batzuk Madrilek onartu baina Nafarroan kudeatzen direnak.

Ezin da oinarrizko errenta ezabatu, 400 euroko laguntza gehiago konplikatuta, langabezia-saria %10 jaitsi... Babesgabetasun soziala orokortzen ari da eta lehen pentsaezina zen geruzetara iristen ari da. Dena den, okerren etorkinak ari dira pasatzen, momentu honetan osasun publikotik eta oinarrizko errentatik kanpo daude; euren jatorrizko herrira itzultzeko atea ireki diete azken finean.

Langabezia egonik, murrizketa horiek guztiak are gehiago nabaritzen dira...

Guretako gehienek ez dugu sekula laguntza horien beharrik izan. Baina gizarte-langileekin harremanetan jarri eta konturatzen zara labirintoa gero eta zailagoa dela; bilatzen duten bakarra da jendeak laguntzak ez eskatzea, dirua aurrezte. Obra erraldoiak finantzatzen dituzte, AHTa edo Arantzadiko baratzetakoa kasu, eta

Profesionalen zerrenda moduko bat osatu dugu. Bizilagun batek iturgina behar duela? Bada, auzoko iturginari deitu diezaiola. Auzoan lan gehiago sortzeko sarea da



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel.: 943681234
www.iriartejauregia.com

aldiz, guri labirintoa konplikatzen digute. Murrizketen kontu honekin lanean ari gara hainbat talderekin: etxetik kanporatuen plataformarekin, gizarte-langileekin, immigranteen kolektiboarekin... Gezurra galanta iruditzen zaigu esatea ez dagoela beste alternatibarik; murrizketak eskuinekoak dira beraiek eskuinekoak direlako.

Eta zein irtenbide konkretu proposatu duzue?

Lanaren banaketa proposatzen dugu. Nola iritsi horretara? Administrazio publikoan ordu estrak debekatu daitezke, esaterako. Aurtengo aurrekontuetan 5 milioi euro bideratu dituzte ordu horiek ordaintzera. Laneguna ere murriztu daiteke, 35 ordurantz joan enpresa publiko eta pribatuetan. Honek guztiak 60.000 lanpostu sor ditzake Hego Euskal Herrian. Proposamena enpresa komiteetara eraman dugu, langileek bertan eztabaidatu dezaten, eta orain udaletan ere hasiko gara, eskatuko diegu euren langileek ordu estrarik ez egitea eta azpikontratatzan dituzten enpresa pribatuei ere berdina exijitzea baldintza-pleguen bidez.

Neurri horiek administrazioaren bizkar geratzen dira. Baina zer egin dezake herritarrak egunerokoan?

Profesionalen zerrenda moduko bat osatu dugu. Alde Zaharrean eta Txantrean hasi gara, auzoko profesionalak apuntatzen ditugu bertan (iturginak, igeltseroak...) eta saiatzen gara zerbitzu horiek behar dituzten auzotarrak, langile kualifikatu horiekin kontaktuan jartzen. Bizilagun batek iturgina behar duela? Bada auzoko iturginari deitu diezaiola. Auzoan lan gehiago sortzeko sarea da.

Ekonomia sozialaz asko hitz egiten da orain, kooperatibez, langileek erabakiak hartu ahal izateaz.

Badago beste ekimen bat, oraintsu martxan jarri duguna: herri-bazkarietan eta horrelako ekitaldietan zerbitzua emateko catering kooperatiba bat sortu dugu, langabetuen asanbladan parte hartze dutenek gutxieneko diru-sarrerak izan ditzaten. Horrez gain, modu batean edo bestean, badago jendea Arantzadiko baratzetan lanean ari dena. Interesgarria iruditzen zaigu elikadura burujabetzaz hitz egiten hastea, batez ere badagoelako jendea zer janik ez duena, horretarako dirurik ez baitu.



“Lehenengo asanbladek elkarte anonimoa ziruditen: bakoitzak kontaktzen zuten bere historia, nola bizi zuten pobrezia”.

Egoera horiek ezagutu dituzue asanbladetan?

Bai, badago jendea oso diru gutxiarekin hilabetea igarotzen duena, 100-150 euroz ari gara. Ideia bat egin dezazun: batzuei izugarri kostatzen zaie asanbladetara etortzea, Iruñeko beste puntan bizi dira eta *Villabesak* balio duen euroa ordaintzea sekulako sakrifizioa da eurentzat.

Zein dira herritarrek jasaten duten egoeraren errudunak?

Sistema bera da, kapitalismoa. Eta beherago joz gero, Angela Merkel eta Europako Banku Zentrala aitzakia bat besterik ez dira, beti besteari botatzen diogu errua. Barcinaren diskurtsoa da Madrildik datozen arauak

TERMOMETROA • GREBA OROKORRA

bete behar dituela, Rajoyk dio ezin duela ezer egin...

Baina sistema guztiok osatzen dugu.

Ez dut ukatzen hein batean errurik ez dugunik, behar genuena baino gehiago kontsumitu dugu-eta. Baina bestaldetik, gobernatzen gaituztenek diru publikoa xahutu dute, ezertarako balio ez duten azpiegiturak eraiki dituzte, hor daude Los Arcos-eko zirkuitua, Navarra Arena... Beraiek dute errua, zementuan oinarritu dira jendearegan beharrean.

Enpleguaren mahai bat osatzea eskatu zenuten. Nola dago kontua?

Parlamentuko lan-batzorde batean izan ginen eta eskatu genuen enpleguaren mahaia osatzea. Alderdiei proposatu genien ideia hori, eta batzuek bere egin zuten, baina ez du beste biderik egin. Guretzat interesgarria da langabetuek ahotsa eta botoa izatea balizko mahai horretan.

Ekainean Herri Ekimena izeneko plataforma sortu zen. Zertarako balio du halako plataformetan elkartzeak?

Ona da momentu honetan kolektibo eta taldeak batzea, eta Herri Ekimena anitza eta irekia da. Egia da badaudela kolektibo batzuk beste plataforma batzuetan bilduta, nolabait esatearren, beste sektore batzuei atxikiagoak. Bilatu beharra dago zerk batzen gaituen mugimendu sozial guztiak eta hortik aurrera lan egin.

Azkenaldian enpresa komite batek manifestazioa deitu eta beste enpresetako langileek ere parte hartzen dute, Orkoiengo Kayabarekin gertatu zen gisan. Elkartasuna areagotzen ari dela dirudi.

Ematen du baietz. Lanean eta langabezia gaudenon arteko marra gero eta meheagoa da, enplegu finkoa ametsa da. Krisiak berak behartu ditu langileak eta enpresa komiteak bat egitera. Kayabaren manifestazio hartan langabetuen asanbladak ere parte hartu zuen; kazetari batzuek ez zuten hori ulertzen.



“Aurreko grebak balio izan zuen koalizio gobernua hausteko, PSNk atzera egin zuen. Oraingoak Barcina bera derrigortu behar du atzera egiten”.

(...)

Gure ustez nolabaiteko lotura egon behar du lana dutenen eta ez dutenen artean, zeren eta enpresariiek xantxia bezala erabiltzen gaituzte langabetuok. Inasan gertatu zen, Irurtzunen: “Ez duzuela metalaren hitzarmenaren minimoekin lan egin nahi? 48.000 pertsona daude zuen lana hartzeko prest”. Xantxia hori hausten ez dugun bitartean, egoera jasanezina izango da lanean daudenentzat eta lanik ez dutenentzat.

Irailaren 26an greba orokorra izango da. Zergatik babestu duzue?

Beharrezkoa iruditu zaigu mugimendu sozialek ere grebarako deialdia egitea, ez bakarrik sindikatuek. Langabezia dagoen jendeak, pentsionistek, gazteek greba babestu eta egin behar lukete, edukiz bete behar dute egun hori, greba soziala izan behar du laborala baino gehiago. Azkeneko erreformekin lan eskubideak ezezean geratu dira eta orain eskubide sozialak ez galtzeko borrokatu behar dugu, izorratuen dagoen jendea babestu behar dugu. Ez bagara kapaz hori egiteko, lan eskubideak ez dizkigute itzuliko.

Eta grebak horretarako balioko du?

Aurreko grebak Nafarroan balio izan zuen koalizio gobernua hausteko. Greba hark PSN atzera egitera behartu zuen, bere boto-emaile askok ere greba egin baitzuen. Honakoak Barcina bera derrigortu behar du atzera egiten. Dena den, egun bakarrek grebek harago jo behar lukete, autoafirmaziorako balio dute, baina hortik aurrera jarraipena behar da. Azkeneko grebaren biharamunean hainbat lagun San Lorenzo elizan itxi ginen borrokak jarraitu behar duela aldarrikatzeko.

Oraingoan ere halako ekintzarik egingo duzue?

Diputazio aurrean biltzen garenon artean eztabaidatzen ari gara, baina oraindik ez dugu ezer itxita. ■



MARIBI APRAIZ, MARIMAR PÉREZ ETA TERE RUIZ

Berritzegune Nagusiko hizkuntza aholkulariak

Nola irakatsi hizkuntzak erabiltzeko izan daitezzen

Apraiz, Pérez eta Ruiz eskola zaharrekoak dira; hizkuntza ondo ikasiko zuten ustean, gramatika, ortografia eta esaldi-zuhaitzak gogotik eginak dira. Irakasteko metodo horren eraginkortasuna ordea, zalantzan jartzen dute, eta eleanitzak diren ikasleen panorama berrian, metodo komunikatiboaren alde egiten dute.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkia: ARGIA



Ezkerretik eskuinera, Maribi Apraiz, Marimar Pérez eta Tere Ruiz, Berritzegune Nagusiaren egoitzan, Bilbon.


BERRITZEGUNE NAGUSIKO, (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza) hizkuntza aholkulariak dira Maribi Apraiz eta Marimar Pérez. Tere Ruiz berriz, Hizkuntzen Trataera Bateratua programaren arduraduna da.

Edozein hizkuntza irakasteko eta ikasteko proposamen metodologi-

ko eraginkortzat dute ikuspegi komunikatiboa. 1960-70eko hamarkadan iritsi zen hona ikuspegi hori, baina ezin esan hezkuntza sistemak (argitaletxeek, ikastetxeek, irakasleek...) barneratuta duten metodoa denik. Hirurekin izandako elkarrizketan ikuspegi komunikatiboa azaltzen saiatu gara.

Hitz gutxitan esan al daiteke zer den ikuspegi komunikatiboa?

Maribi Apraiz. Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko proposamen metodologikoa da. Adjektiboak berak ematen du erreferentzia nagusia, komunikatzea, hizkuntza erabiltzea du helburu. Oinarria hizkuntza trebeziak lantzea da: bakarrik hitz egitea,



Irakasleentzako materiala sarean daukate zintzilikatuta. Irudian, Lehen Hezkuntzako materiala. Komunikazio proiektuak helbide honetan daude: sites.google.com/site/komunikazioproiektuak/

elkarrekin hitz egitea, idaztea, irakurtzea...

Marimar Pérez. 1960-70eko hamarkadetan atzerriko hizkuntza, ingelesa, irakasteko sortu zen eta hedatzen joan zen. Jada, hizkuntza guztietarako baliagarri dela aldarrikatzen da.

Zer gertatu da? Erdi Aroan, hizkuntza irakasteko modua erabileran zegoen zentratuta, erretorikan. Hizkuntza ondo erabiltzea zen helburu nagusia. Gero, gramatikak hasi ziren azaltzen eta hizkuntza irakasteko fokoa gramatikaren arauetan eta kodeetan jarri zen.

Tere Ruiz. Esaten da hizkuntzaren kodea oso ondo deskribatzen baldin badakizu, kodea (hizkuntza) ondo erabiltzeko gai zarela. Baina...

Ez du funtzionatzen.

T. Ruiz. Ez du beti funtzionatzen.

M. Apraiz. Honen guztiaren oinarrian bada uste oker bat. Irakasleok, edo gizarteak, ez dakit zein jarri protagonista, uste dugu ikasleek lehenengo hizkuntza badakitela eta jakin badakitenez, zer egingo dugu hobetzeko? Bada, azter dezagun hizkuntza bera, ikas ditzagun morfologia, sintaxia... eta komunikatzeko gaitasuna hobetuko dute. Eta ez

da hala gertatzen, erabileraren bidez hobetzen dugu.

T. Ruiz. Eta gogoetaren bidez. Azkenean *continuum* moduko bat da, hemen [besoarekin ertz bat adierazi nahi du] ikuspegi gramatikala daukagu (hizkuntza deskribatzean oinarritutakoa) eta hemen ikuspegi komunikatiboa (hizkuntza erabiltzean oinarritutakoa). Hemendik hona badaude bideak.

“Testu-liburuek ziurtasuna ematen diote irakasleari. Testu-liburu batzuetako edukiak, ageri diren moduan landuta, hizkuntzaren erabileran ikasleek ez dute larregi sakonduko. Irakasleek badakite hori”

Maribi Apraiz

Bigarren muturrean [komunikatiboa], 2-3 urteko umea dago; hizkuntza erabiltzen hasi da gurasoen laguntzarekin. “Ura nahi duzu?” galdetzen diogunean ez diogu esaten “ura sustantiboa da eta gaztelaniaz esan nahi baduzu *agua* esan behar duzu”. Ez diogu umeari hiz-

kuntzaren erabilera azaltzen, erabiltzen laguntzen diogu. Baina, batzuetan, gogoeta ezinbestekoa da hobetzeko. Adibidez, idazten ari gara eta ez dakigu nola esan gauza bat. Hiztegiara joko dugu, edo subjuntiboa nola erabiltzen den erreparatu dugu. Alegia, gogoeta egingo dugu. Beste gauza bat da, besterik gabe, alemanaren aditz-jokoa buruz ikatea.

M. Apraiz. Tamalez, batzuetan, azterketan hori galdetzen zaie.

T. Ruiz. Ni nagusia nintzela euskaldundu nintzen. Akordatzen naiz azterketak zein ondo egiten genituen eta zein txarto erabiltzen genuen aditza hitz egiterakoan.

Gutxienez hiru hizkuntza irakasten diren hezkuntza sistemaz ari gara. Nola gauzatzen da ikuspegi komunikatiboa horrelako testuinguruan?

T. Ruiz. Hizkuntzen Trataera Bate-ratuaren bidez. Hizkuntzak irakasten dituzten irakasleek akordioak egin behar dituzte, antzeko metodologiak erabili behar dituzte.

Hala egiten al dute?

T. Ruiz. Guk nahi baino gutxiago. Dena dela, curriculumak da praktika markatzen duen marko legala. Irakasle askok aitzakia moduan darabilte curriculumak, eduki gehiegi dituela diote... Ikuspegi komunikatiboaren bidez, curriculumak jasoz-

ten dituen eduki guztiak landu daitezke. Eta curriculumaren helburuak begiratzen baldin badituzu, ikusiko duzu hizkuntzaren erabilera dela helburu nagusia.

M. Pérez. Curriculumak da marko legala, baina zer gertatzen da eskola askotan? Testu-liburuek markatzen dute bidea, benetako curriculum bihurtzen

dira. Argialetxeek esango dizute ikuspegi komunikatiboa txertatu dutela, baina gero betiko ariketak dakartzate.

T. Ruiz. Esate baterako, ikuspegi komunikatiboa, eskutitza idazteko eskatuko diezu ikasleei eta horren bidez hiztegia, ortografia, arau gra-

“2-3 urteko umeari ‘Ura nahi duzu?’ galdetzen diogunean ez diogu esaten ‘ura sustantiboa da eta gaztelaniaz esan nahi baduzu *agua* esan behar duzu’. Ez diogu umeari hizkuntzaren erabilera azaltzen, erabiltzen laguntzen diogu”

Tere Ruiz

matikalak ikasiko dituzue. Testu-liburuek hizkuntza zatikatuta ekarzen dute: lehenengo bi orrialdeetan ortografia, gero lexikoa, gero gramatika, gero literaturaren historia eta bukaeran idazketa tailerra. Ikasleek ez dute filologo txikiak izan behar.

M. Apraiz. Testu-liburuek ziurtasuna ematen diote irakasleari. Testu-liburu batzuetako edukiak, ageri diren moduan ikasgelan landuta, hizkuntzaren erabilera ikasleek ez dute larregi sakonduko. Irakasleek badakite hori.

M. Pérez. Gauza gehiago dago. Metodo formala erabiltzen baldin baduzu ikasgela kudeatzea askoz errazagoa da. Irakasleak badaki zer esan behar duen, badauka jakinduria eta gela erraz kudeatzen du. Ikuspegi komunikatiboan ez dago isiltasunik, irakasleek ez dute asko hitz egiten, ikasleak mugitu egiten dira batetik bestera. Galderak ez dauka irakaslearen erantzun bakarra, erantzunak eztabaidatu egiten dira. Horrela lan egitea ez da erraza eta irakaslearen prestakuntzan horrelako estrategiak eta edukiak ez dira sartzen.

Hiru hizkuntza eta ikasle bat

Marimar Pérez. Hezkuntza eleanitzean ezinbestekoa da ikuspegi komunikatiboa lantzea. Zergatik? Lehen litekeena zen hizkuntza bakarra irakastea. Orain, gutxienez hiru hizkuntza irakasten dira eskolan eta irakas-denbora aprobetxatu egin behar dugu. Denbora aprobetxatzeko modu bakarra dago, hau da, zer da hizkuntzak lotzen dituen ezaugarria? Bada hizkuntza denak komunikatzeko tresna direla. Ezin dugu jarraitu hizkuntza bakoitza modu desberdinean irakasten. Ikasle

bakarrak hiru hizkuntza ikasi behar ditu.

Esan dugu irakasleek diotela curriculumak eduki gehiegi biltzen duela. Baina, ikasgelan euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez gauza bera errepikatzen dugu. Ipuinaren egitura nolakoa den euskaraz ikasi badute ez dugu gauza bera egin behar gaztelaniaz, ez dugu berriz azaldu behar sarrera-korapiloa-amaiera. Hizkuntza irakasleen artean hitz egin behar dugu eta elkarri galdetu, “zuk zer irakatsi duzu?”.

Testu-liburuak eta irakasleak aipatu ditugu. Gurasoek nola baloratzen dute irakas metodo hori?

T. Ruiz. Gurasoek, irakasleen moduan, ziurtasuna nahi dute.

M. Apraiz. Gurasoek sentitu behar dute, ikastetxean irakasle guztiek estrategia metodologiko berdintzekoak dituztela.

idatzi dugu, asko entzun dugu, baina hizkuntza ez dugu egin”. Zer da hizkuntza ikasle horrentzat? Análisi sintaktikoa, morfologia, sintagma... Irakurtzea eta idaztea dibertimendua balitz bezala.

M. Apraiz. Irakaslearen betiko galdera da: Zer ikasi behar dut azterketarako?

T. Ruiz. Ikastea oso erraza da. Beste anekdota bat kontatuko dut: Gaztelania eskolak eman behar nituen eta aurreko ikasurtean literaturan zer egin zuten azaldu zidaten ikasleek. Irakasleak literaturari buruz ehun galdera prestatu zituen eta hiru hilabeteko 33 erantzun jakin behar zituzten buruz. Galdera-erantzunak horrelakoak ziren: “Non jaio zen Machado? Sevillan”.

“Ikasgelan euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez gauza bera errepikatzen dugu. Ipuinaren egitura nolakoa den euskaraz ikasi badute ez dugu gauza bera egin behar gaztelaniaz”

Marimar Pérez

M. Pérez. Ikasturte batean metodo bat eta hurrengoan bestea... horrela ezin da ibili. Ikasleak ere, irakas metodo tradizionalarekin (gramatikarekin) ohituta daude. Anekdota bat kontatuko dizuet. Ikasturte amaieran, irakasleak ikasleei eskatu die kontatzeko zer ikasi duten. Baten erantzuna: “Asko irakurri dugu, asko

Horrelako gauzak ikastea oso erraza da. Azterketa bezperan ikastea nahikoa duzu gainditzeko. Baina hori zertarako? Aspergarria da horrela ikastea eta ikasitakoa ahaztu egiten da. Ez al da hobe literatura irakurtzen ikastea, irakurriz gozatzea? ■



Babeslea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Gratuondokoak euskaraz UPV/EHU 2012-13 ikasturtea

Master ofizialak:

- Euskal nazionalismoa XXI. mendean
- Hizkuntzalaritza eta euskal filologia
- Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua
- Multimedia komunikazioa. EHU-EITB unibertsitate-masterra
- DBHko, Batxilergoko, LHko eta hizkuntzen irakasleentzako irakaslearen prestakuntza

Unibertsitateko espezialista tituluak (berezko tituluak):

- Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX.-XXI. mendeetan
- Hizkuntza-plangintza
- Itzulpenintza eta teknologia
- Software libre: sistema, sarea, segurtasuna eta web-aplikazioak
- Neuroerregulazioa
- Hondakinen kudeaketa eta tratamenduak



Informazio gehiago:
www.ikasketak.ehu.es

KAZETARI KURDUEI EPAIKETA

«Baimena eskatu behar dut ama hizkuntza erabiltzeko?»

Hamarnaka kazetari kurdu epaitzen ari dira egunotan Turkian PKKrekin lotura dutelakoan. Gehienak *Azadiya Welat* egunkarikoak dira, kurduerazko bakarra.

| JON TORNER |

TURKIAK 44 KAZETARI kurdu epaituko ditu, ustez PKK alderdiarekin lotura duen Kurdistango Komunitateen Batasuna (KCK) erakundeko kide izan edo loturarik dutelakoan. Auzipetuentzat zazpi eta hogeita bi urte arteko kartzela zigorrak eskatzen ditu fiskaltzak. Froga moduan, poliziak atxilotuen etxeetan aurkitutako liburuak aurkeztu dituzte, baita Kurdistanen aldeko manifestazioetan parte hartu zutela erakusten duten argazkiak ere, mobilizazio horiek kazetari gisa jarraitu zituzten arren.

Irailaren 10ean hasi zen 44 kazetarien aurkako epaiketa –haietatik 36 espetxeratze prebentiboan izan dira abenduaz geroztik–. Saioa aurreikusi baino beranduago hasi zen, akusatuak kurdueraz hitz egiten saiatu zirelako, epaileak debekatu zien arte. “Zure ama hizkuntza erabiltzea arnasa hartzea bezalakoa da. Baimena eskatu behar al da arnasa hartzeko?”, galdetu zuen Yuksel Genc kazetariak.

Giza eskubideen aldeko taldeek esan dute epaiketa hau Gobernu turkiarrak prentsa beldurtzeko eta Kurdistanen aldeko ekintzaileak zigortzeko egindako saiakera dela.



Epaiketa aurreikusi baino beranduago hasi zen, auzipetuak kurdueraz hitz egiten saiatu zirelako.


Kazetari kurduak bizi duten egoeraz ARGIAN

Azadiya Welat egunkarikoak dira epaituko dituzten kazetari gehienak. Hogeita urte baino gehiago daramatza kalean, hainbat bider itxi dute eta bertako 30 kazetari hil dituzte. Karlos Zurutuza ARGIAren kolaboraitzailea beraiekin izan zen 2008an (2.165 zk.): “Hizki zopa xume bat txorakeri bat izan liteke askorentzat, baina kurduontzat berebiziko garrantzia du, zentzu guztietan” zioen erredaktore batek ordukoan. Argia.com-en *Arrisku kazetaritza* izeneko diaporama dago ikusgai, egunkariak bizi duen egoeraz. (<http://bit.ly/PdVJTP>)

Bruselatik emititzen duen Roj TV, Kurduen telebista kateko langile batzuk ere epaituko dituzte. 40 milioi kurduen erreferentzia nagusi bilakatu da. Komunikabide horri buruzko diaporama ere ikusgai dago sarean: *Kurduen abotsa Europako bihotzetik* izenburupean. (<http://bit.ly/Okr2tw>). ■



ATXASPI HOTELA



Bittiria, 24 · Lesaka (Nafarroa) · T.: 948 637 536 · hotela@atxaspi.com · www.atxaspi.com



Krisiaren kontrako tresnak

NAZIONALISTA ESPAINIARREK, hala nola Euskal Herriko jarraitzaileek eta fronte mediatiko boteretsuek, ohitura dute krisi garaioetan honako mezua zabaltzeko: “identitate arazoak” baztertu eta independentziaz hitz egiteari utzi behar diogula, helburuak krisiari eta langabeziari irtenbideak bilatzea izan behar duela. Independentzia egungo krisiaren irtenbideekin zerikusirik ez balu bezala. Independentzia krisiaren kontra egiteko tresna ez balitz bezala. Joan den astean Bartzelonan sekulako babesa izan duen nazioen independentziaz ari gara, katalanaz nahiz euskaldunaz.

Bai, badaude krisiaren kontrako tresnak. Aste honetan jakin dugu Euskal Herriko zati batean, EAEn, gero eta gazte gehiagok jotzen duela Lanbide Heziketara. Krisian darमतzagun bost urteotan, 27.971 ikasle izatetik 37.463 izatera igaro dira hezkuntza sektore horretan; %33ko igoera. Aurten, iaz baino 1.500 ikasle gehiago erregistratu dira. Lanbide Heziketa krisiaren kontra tresna garrantzitsua da, horren bidez gazte askok enplegua lor dezake. Hala ere, badago krisiaren kontrako beste erremintarik: euskal eta katalan nazioen independentziaren alde borroka egitea. Gure burujabetza ekonomiko eta politikoa usatuz, gure etorkizuna antolatu ahal izango dugu, gure natur baliabideak kudeatu, eta karga fiskalak modu justuan eta elkartasunean banandu ahal izango ditugu. Tresna hau, eta Lanbide Heziketarena, beste asko bezala, osagarriak dira. Lanbide Heziketarako ez da arazorik sortuko Madrilen. Independentziarako arazoak urrunetik ikus daitezke baina. Jeneral militarren batek jada mehatxu egin du ejertzitoak esku hartuko duela. PSOE eta PP, gai honetan, esku militarra behar izanez gero, eskutik helduta doaz. ■

Juan Mari Arregi



EleKatu-EliKatu ekimena sortu dute Baionan

“BAIONAK euskal komunitate bizi baten beharra du”, esan dute EleKatu-EliKatu ekimeneko kideek. Euskaraz hazi eta aurrera egin nahi dute, naturaltasunez. Asmo horrekin sortu dute ekimena. Euskaraz pentsatu, ekoitzi eta partekatzeo beharrari erantzutea da euskaldun talde horren helburua. Modu askotako ekitaldiak antolatuko dituzte: mintzaldi-egtabaidak, antzerkia, kantu jaialdiak, bisita komentatuak, liburu aurkezpenak, bertso emanaldi bereziak, eta abar.

Irailaren 27an emango dute lehen pausoa. Lorea Agirre Mondragon Unibertsitateko irakas-

leak *Euskal kulturagintzaren estrategiak garatzeko oinarria* ikerketa azalduko du. ■



I. Berbagunea antolatu dute Bilbon

MAHAIAREN INGURUAN elkartuko dira euskaldunak eta euskaldun hartzaileak euskara euskaraz elkarbanatzeko asmoz. Bilboko I. Berbagunea Bilboko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak antolatu dute, eta irailaren 25ean izango da. Euskararen erabilera kalera ateratzeko xedez, Alhondigan mahaiak para-

tuko dituzte eta moderatzailearen bidez euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak solasaldian kateatuko dira. Hainbat gai jorratu behar dituzte berriketa saioetan eta mahaiz aldatuko dira. Kirol, kultur, gizarte eta politika eremuko gizon-emakume ezagunek ere hartuko dute parte. ■

Asturiera koofizial egiteari uko egin dio, berriz ere, bertako Gobernuak

ASTURIERAREN OFIZIALTASUNAREN ALDE lanean diharduen erakundea da Xunta pola Defensa de la Llingua Asturiana (XDLA). Joan den astean, Asturiasko Gobernuak hainbat ordezkariarekin elkartu ziren. Beste behin, asturiera hizkuntza ofizial izateko pausok ematen hasteko eskatu zioten PSOEren Gobernuari. Kultura, Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako ordezkariak asturieraren normalizazioan urratsak

ematearen alde agertu ziren, baina ofizialtasuna lortzeko trantemateak abiatzeari uko egin zioten.

Xunta pola Defensa de la Llingua Asturianaren ustez, gizartearen zati bat baztertzaren ari dira halako jarrerarekin.

Gaur egun, asturiera Asturiasko Printzerriko Autonomia Estatutuko 4. artikulua arabera babestua dago, baina koofizialtasun izaerarik gabe. ■

5.000 urte zorpean baina oraingoan barkamenik ez

“Barkatu gure zorrak, guk gure zordunei barkatzen dizkiegun bezala” errezatu dute bi mila urtez kristauek. Antzeko eskariak egin dituzte gainerako erlijioetan. David Graeber antropologo anarkistak dio zapaltzaileek beti jakin izan dutela tarteka zorrak barkatu behar zirela, zorpetuak matxinatu ez zitezen. Beti... neoliberalismoa heldu arte.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ZORRAK BARKATU, EZ DA BESTE biderik. Historian zehar behin eta berriro egin dute estatuek, hala ezarri dute erlijioek, hain zuzen *establishment*-aren iraupenerako, itolarraren herioan herritarrak dena ipurdiz gora jartzen hasi baino lehen. Horrela mintzo dena Occupy Wall Street mugimenduko bultzatzaileetakoa da, baina antropologo anarkista famatua ere bai. David Graeberren *Debt: The First 5.000 Years* (Zorra, lehen 5.000 urteak) hemengo liburutegietan asteotan banatzen da gaztelaniaz *En deuda, una historia alternativa de la economía* izenburupean.

David Graeber (AEB, 1961) Londresko Goldsmiths unibertsitatean irakasle da, aurretik Yalekoak kanporatu ondoren. Aurretik idatzita dauzka besteren artean bat Madagaskarreko herritarren artean esklabotza utzi arrastoen ikerketa (*Lost people: magic and the legacy of slavery in Madagascar*) eta *Fragments of an anarchist anthropology*. Agian egunen batean ARGIAk izanen du pentsalari honen ideiak zabalago azaltzeko aukera.

Zorrak baziren historiako lehen aztarna idatziak azaldu zirenerako 3.200 urte Kristo aurretik Mesopotamian. Esan nahi baita ordurako bazirela diru kontu sofistikatuak eta kreditu sistema konplexuak; dirua

bera baino milaka urte lehenago sortu zela kreditua, Adam Smithen ondoren ekonomialari gehienek esan dutenaren alderantziz.

“Ekonomiaz urteotan kontatu digutena gezur handi bat besterik ez da”, salatu du Graeberrek elkarrizketetan. Ekonomialariek beti esan dute herritarren arteko trukea egon dela ekonomiaren sustraian: “Emadazu behi bat nire 40 oiloren truke”. Aldiz, antropologok betidanik jakin omen dute hori horrela ez zela, aztertu dituzten herri zaharretan truke mota hori ez dutelako inon aurkitu sekula.

“Antropologok –dio Graeberrek– horrelako gizarteetan ikusi duguna da herritar batek esaten diola besteari ‘bai behi ederra, e?’ eta besteak ‘gustokoa baduzu, eraman ezazu’ eta hura honekin zorretan geratzen da. (...) Benetako galdera da ea nola ‘zurekin zorretan nago’ hori bihurtzen den neurri sistema zehatz bat, nola sortzen den dirua zenbaketa unitate moduan”.

Erantzuna dago bortizkerian. Gerran eta esklabotzan. Graeberrek 500 orriko liburuan zehar azaltzen du dirua, maileguak, metal preziatuak, zorra, gerra, inperioak eta esklabotzak osatutako koktelak eduki dituen garapen eta aldiak.

Duela 5.200 urte lehen idatziak azalduko Mesopotamian, tenplu-

Wikipediako argazkian, ezkerrean, David Graeber kaleko protesta batean New Yorken. Elkarrizketa batean honela mintzatu da Occupy Wall Street mugimenduz: “#Occupyren sorreran inplikaturako lehenengoak gehienak antikapitalistak ziren. Galdetzen badidazu ea guk uste genuen kapable izango ginela kapitalismoari gaina hartzeko ekinaldi bakar batean, noski ezetz. Lanean ari gara hori delakoan azken helburua. Horregatik da klabea jendearen bizimodua benetan hobetuko duen eragina lortzea. (...) #Occupy mugimenduan iraultzaileak diren gauzetako bat da sortzen ari dela espazio prefiguratuak zeinetan esperimintatzen eta sortzen ditugun estaturik eta kapitalismorik gabeko gizartean egon beharko duten egitura instituzionalak. Gure itxaropena da horiek erabiltzea gaur dauden instituzioekiko legitimitate krisi moduko bat sortzeko”.

jauregi erraldoien altzoan asmatu zuten azoka bere kontabilitate, mailegu eta zorrekin. Interesak ere bai, %20koa 2.000 urtez.

Zorrek bateratsu asmatu zuten barkamena ere, historiagile eta ekonomialariek gutxitxo aipatu bide dutena. Eguraldi txarreko urteetan, edo izurriteetan, nekazariak zorretan itozten ziren. Sarritan hartzekodunek zordunaren azindak, lurrak eta etxeak kendurik, seme-alabak edo emaztea esklabo hartzen zituzten; azkenik nezakazaria bera ere bai.

Matxinaden beldurrez agintariak zanpaketa handia zerabiltenez, zordun askok hirietatik ihes egiten zuten, sasia eskeko edo lapurretan bizirautea. Hori saihesteko ezarri zituzten agintariak zorren jubileo eta bestelako barkamenak.

Arbeletik zor guztiak ezabatu

Graeberrek dioenez, sanskritoz, hebreeraz eta arameoz “zorra”, “errua” eta “bekatua” hitz berdinez izendatzen dira. Beranduago erlijio handiak sortu zituzten fundatzaile guztiak antzinako zorrei buruzko hizkeraz beztitu zituzten beren mezuak: “Esan nahi balute bezala zorrak ez direla sakratuak, benetan ekintza sakratuak direla zorra barkatzea, zorrak ezabatzeke ahalmena, zorrak benetakoak ez direla jabetzea”.



konbidatu zituen merkatuan jokatzen, zorretan sartzen. Graeberrek horri deitzen dio “zorren inperialismoa”.

Arazoa da zorretan oinarrituta funtzionatzea asmatu zuten mesopotamiarren alderantziz, orain sistema kapitalistak ahaztu du barkamena, zorpetuei arnasa hartzeko modua egingo liekeen jubileoa.

“Horren ordez –esan zion Graeberrek *Naked Capitalism* guneko Philip Pilkintoni– zorpetuak babesteko instituzioak sortu ordez, hartzekodunak babesteko instituzio erraldoiak sortu dira, esaterako Nazioarteko Diru Funtsa eta *rating* agentziak. Agentziok aldarrikatzen dute, logika ekonomikoaren kontra, zorpean daudenek ezin dutela ordainketarik eten. Esan beharrik ez dago, ondorioa katastrofikoa da. Ikusten ari gara antzinako jendeari beldurrik handiena eragiten ziona: jende zorpetua hondamendiaren ertzetik balantzaka”.

Kapitalistak berak ere zorpean daudenez, 2008an piztutako krisitzaurrekin jendeak ikusi du sistemak edo estatuek, edo Graeberrek dioten moduan “Inperioak”, zordun txiroak behartu dituela zordun aberatsak erreskatatzera.

Occupy Wall Street mugimendukoekin Graeberrek eskatzen du mundu guztiarentzako: “Arbelean idatzitako zor guztiak ezabatu”. Dirua sorkuntza sozial bat baldin bada, promesa bat, aberatsek eskatzen dutenean desagertu daitekeena, denok parte hartu behar dugu promesak egin eta negoziatzeko prozesuan. ■



Ez da izan ez zorrik ez merkatarik instituzio gotor bat gabekorik, izan jatorri jainkotiarreko monarkiak, edo *sharia* bezalako lege erlijiosoak edo inperioak. Herritarrak bezala menperatuak behartu egin behar dira bai zergak eta bai zorrak ordaintzera. 500 urteotan umotuz etorri den kapitalismora etorrira, potentzia handiek munduaren gehiengoa betirako esklabotzara kondenatu zuten. Beti aipatzen da Haitiren kasu dramatiko, independentzia lortu arren kolonoekiko zorretan geratu baitzen; zor huraxe da gaur uharte erdi hark bizi duen hondamendiaren iturburu.

Inperio kapitalista modernoek Erromaren eta Greziaren eredia erabili izan dute beren zor krisiak


gainditzeko: bertako populazioaren lasaitasuna erosi gero eta urrutiagoko kolonizatuen zor eternoen bizkar. Bigarren Mundu Gerraren ondoren Keynesen tesiak aplikatuz, klase borroka etentzat eman nahi izan zuten kapitalistek, Graeberren esanetan: “Gordin azaltzeko, Ipar Atlantikoko, AEBetatik Alemaniainoko, langile zuriei tratua eskaini zieten. Alde batera uzten bazituzten sistema errotik aldatzeko ameskeriak, baimenduko zieten sindikatuek edukitzea, abantaila sozial multzo handi bat gozatzea...”.

Baina 1979an Ronald Reagan eta Margaret Thatcher agintera iristearrekin, sistema kapitalistak langileekiko ituna hautsi egin zuen. Sindikatuei eraso ostean, herritarrak



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Euskal independentismoa, EAE eta Nafarroa

HERRI bakoitzak bere bide eta ezaugarriak ditu alor guztietan, baina euskal abertzaletasunak, bere bi adar nagusietan gainera, badu zer hausnartu Kataluniako prozesuaz.

Ezker abertzalearentzat –eta, krisi kontuen ondotik, euskal gizartearentzat ere bai– orain bake prozesua aurrera ateratzea da oinarritzakoa, baina hori hankamotz geratuko litzateke iraganaren irakurketa kritikoa egin barik, besteak beste borroka armatuaren erabileraz: noiz arte izan zen egoki, noizbait izan bazen? Noiz arte etiko, noizbait izan bazen? Denetariko erantzunak izango dira eta hori da logikoena gainera, baina ez garrantzitsuena. Inportanteena hausnarketa kritikoa fasea zintzotasunez gaizditzea da, jakinik ondorio guztiak gure historiaren parte direla, eta ezker abertzaleak horietatik ikasi beharko duela bere etorkizunaren eraikuntzan.

Jeltzaleak ere izan ziren Diadan, katalanentzako estatu eske European. Katalanentzat bai eta euskal herritarrentzat ez? Zergatik ez du lekuri euskal estatuak 2015eko proiektuan? EAJ eta CiUren azken 30 urteetako bideak ez dira berdinak izan, baina bai oso antzekoak eta, orain, Artur Masek katalan independentisten arnasa kolkoan sumatzen duen gisan, hala gertatuko zaio Iñigo Urkulluri euskal independentistekin, bai kanpotik –EH Bildu–, bai jeltzaleen baitatik ere.

INDEPENDENTISMOAK hausnarketa sakona egin beharko du Euskal Herriaren independentzia eta bere lurralde batasuna uzta-

tzeari buruz. Katalanek aspaldi erabaki zuten printzerrian aurrera egingo zutela Katalan Herrietako beste lurraldeen zain egon gabe. Euskal Herriko abertzaletasunak ez du oraindik hausnarketa hori sakontasunez bideratu. Hego eta Iparrekoak bai, bi estatu, bi tempus. Baina Hegoaldeaz ez da soberra eztabaidatu. Egia esan, jeltzaleen pragmatismoak aspaldi egin zuen haiek indartsu ziren EAEn aldeko apustua, gaur arte beti autonomiaren hautua hobetsiz.

Auzia ez da samurra: herritarren gehiengoa lortzen badu, EAEk independentziaren aldeko bere bidea egin behar du, Nafarroa noiz gehituko itxaron gabe?

Azken 30 urteetan, ezker abertzaleak Hegoaldearen erabaki batasunarekin saihestu du hausnarketa. Anaitasuneko Adierazpenarekin onartu zuen, duela ia hamar urte, gaur gaurkoz EAEk eta Nafarroak beren kabuz erabaki behar dutela. Gerora, Loiolako elkarrizketetan, Nafarroa eta EAEn buruzko balizko autonomia estatutuaren erreferendumaz gertatu zena ikusita, garbi dago ezker abertzalean ere ez zegoela gaiarekiko kontsentsu argirik.

AUZIA ez da samurra: herritarren gehiengoa lortzen badu, EAEk independentziaren aldeko bere bidea egin behar du, Nafarroa noiz gehituko itxaron gabe? Edo, independentzia geroagorako utziz, nazio eraikuntza beste ezaugarriez zizelkatuz garatu behar da Hegoalde osoan? Nafarroan abertzale-

tasunak azken 30 urteotan duen ordezkari-tza instituzional handiena duenean, komeni da bi erkidegoen arteko arrakala handitzea? Edo ez ote hobe, akaso, euskal kultura eta abertzaletasuna nabarismoaren gizarte oposizioan gizentzen jarraitzea? Edo, areago, aukera balego, UPN oposiziora bidali eta haren gobernu alternatibari gizendu?

ETAren ondorenean, posible ote da nafar belaunaldi berriak nafartasunean –hots, euskaltasunean– haztea, eta ez haren gorrotoan? Bake prozesuarekin, urratsez urrats garatuko den eztabaida da nahitaez. Baikor izateko arrazoiak badira: ETAren pagotxa desagertu zaio nabarismoari, abertzaleen azken urteetako emaitza oparoa –NaBairekin hasi zena– hor da, krisi ekonomiko sakona...


Futbol arrakasta eta guzti, Espainiaren erakargarritasuna gaur egun, Nafarroan ere, hutsala da. Eta komeni da gauza asko ez ahaztea, horien artean duela 30 urte Nafarroako PSOE autodeterminazioaren aldekoa zela. Pertsona baten bizitzaren erdia, herena... herri baten historian 30 urte besterik ez.

Hori guztia eztabaidagai da, nola ez. Baina gero eta eztabaida txikiagoa da transbertsalismoak estali nahi duen egia honetan: erabaki eskumena Kataluniako, EAEko eta Nafarroako gizarteetan da. Hauteskundez, kontsultaz edo erreferendumez, eta zenbat eta akordio zeharkakoagoan hobe, baina herritarren gehiengoa da erabakigarria. Autodeterminazioa ote, azkenean? ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

STM San Telmo Museoa



San Telmo Museoa

5 harpidedunentzat
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Inguru Abentura

Espeleologia (II. maila)
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2335. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Miren Olabarria Arana (Bergara)

ARTIUM

- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Eva Ruiz de Galarreta Crespo (Noain, Elortzibar)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
- Maria Consuelo Ruiz Vazquez (Irun)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Manu Urruzola Aranzabe (Alkiza)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)
- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Jabier Altzorritz Lardies (Bilbo)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA - Ikasle Agenda

- Urumea Euskaltegia (Donostia)
- Mikel Leturiaga Gorrotategi (Zarautz)
- Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
- Edume Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)
- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)
- Andoingo Udala Euskara Zerbitzua (Andoain)
- Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)
- Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)
- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)

888 TXISTE

- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- German Kortabarría Igartua (Getxo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

